



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko abuztuaren 16a

68. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Eguesibarreko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (21. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 21ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Barañaingo Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Barañaingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Irismena (5. or.).
- IV. Iritzia (6. or.).
 - IV.1. 2010eko ekitaldiari dagokion Udalaren Kontu Orokorra (6. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (6. or.).
 - IV.3. 2010eko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (6. or.).
 - IV.4. 2009ko txosteneko aholkuen jarraipena (7. or.).
- V. Kontu orokorraren laburpena 2010 (9. or.).
 - V.1. Aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (9. or.).
 - V.2. Aurrekontu-emitza bateratua (10. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua (10. or.).
 - V.4. Egoera-balantze bateratua (11. or.).
 - V.5. Galera eta Irabazi bateratuen kontua (*) (12. or.).

VI. Iruzkina, ondorioak eta aholkuak (13. or.).

- VI.1. Alderdi orokorrak (13. or.).
- VI.2. Langileak (13. or.).
- VI.3. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (14. or.).
- VI.4. Inbertsioak (15. or.).
- VI.5. Diru-sarrerak (16. or.).
- VI.6. Hirigintza (17. or.).
- VI.7. "Baraberri S.L." merkataritza-sozietatea (18. or.).
- VI.8. Barañaingo Auditorioa Fundazioa (18. or.).

I. Eranskina. 2010eko ekitaldiari dagokion kontu orokorraren memoria.

II. Eranskina Fundación Auditorio Barañáin/Barañáin Auditorioa Fundazioa (19. or.).

(Oharra: I. eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Comptos Ganberak, bere jarduera-programari jarraituz, Barañaingo Udalaren eta "Lagunak" Udal Zerbitzua eta "Luis Morondo" Musika Eskola bere erakunde autonomoen 2010eko Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du.

Udalak 1,40 km²-ko hedadura du, eta 21.705 biztanle zituen 2010eko urtarrilaren 1ean.

Barañaingo Udalak eta haren erakunde autonomoek honako zifra adierazgarriak zituen 2010eko abenduaren 31n:

Erakundea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 2010-12-31
Udala	14.362.119	15.406.961	148 (1)
“Lagunak” Udal Zerbitzua	2.077.748	2.100.072	18
“Luis Morondo” Musika Eskola	950.186	953.509	22
- BATERATZEAREN DOITZEAK, GUZTIRA	(381.597)	(381.750)	-
Bateratua, guztira	17.008.456	18.078.792	188

(1) 2010eko abenduaren 31n langileen atalean sartu dira gizarte enplegu babestuko 9 langile eta oinarritzko errentaren 6 hartzaile.

Udalak, 2003ko urtarrilean, eratu eta bere babespean ezarri zuen Barañain Auditorioa Fundazioa; haren xedea da Barañaingo Arte Eszenikoen Zentroa kudeatzea eta administratzea.

2004ko azaroan, udalak “Baraberri SL” sozietate mugatua sortzea erabaki zuen. Sozietate horren kapital guztia udalarena da, eta hirigintza-garapeneko zerbitzuak eta zerbitzu ekonomikoak kudeatzea du eginkizun nagusia. Sozietate horren eraketa ez da oraindik ere eskritura publiko batean

gauzatu, eta sozietateak ez du inolako jarduerarik egin.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketarako eta tratamendurako zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraioa eta ibai-parkearen kudeaketa. Taula honetan erakusten da horrek guztiak Udalari ekarri dion gastua:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2010ean
Uraren ziklo integrala eta hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua (kontsumoak)	132.141
Eskualdeko hiri-garraioa	302.652
Ibai-parkearen kudeaketa	70.455
Guztira	505.248

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taulan ageri direnak dira:

Zerbitzua	Udala	EEAA	Mankomunit.	Zerbitzu kontratuak
Zerbitzu administratibo orokorrak	x			
Musika Eskola		x		
Hirigintza	x			
Ur-hornidura			x	
Hiri-hondakinak			x	
Bide-garbiketa				x
Udal-kiroldegia	x			
Atletismo pistak	x			
Retegui frontoia		x		
Kirol jardueren kudeaketa	x	x		
Liburutegia	x			
Ludoteka	x			
Etkez etxeko arreta	x			x
Babestutako enplegu soziala	x			
Kultur Etxea	x			
Hezkuntza	x			
Euskara	x			
Berdintasuna				x
Gazteak				x
Herritarren arretarako bulegoa	x			
Errolda	x			
Herritarren parte-hartzea	x			
Lan-mundura sartzeko Bulegoa				x
Immigrazio Zerbitzua				x
Telezentroa	x			
Mentor Aretoa	x			
Diru-bilketa	x			
Derrigorrezko diru-bilketa				x

Toki-entitateei 2010eko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.

- Legegintzako 251/1993 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuari buruzkoa.

- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki-entitateentzat zehaztutako berezitasunekin.

- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatera moldatzen dituen.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu Legea, Enplegurako eta Toki Iraunkortasunerako Estatuko Funtsa sortu zuena.
- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.
- Kontularitzaren eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuek ezartzen dute, zeinak Nafarroako toki-administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Barañaingo Udalaren 2010eko aurrekontua betearazteko oinarriak eta udalaren gainerako barne-arauak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako fiskalizazio-lanaren norainokoa. Laugarrenean, Kontu Orokorrari buruzko gure iritzia. Bosgarrenean, Kontu Orokorraren laburpena, Udalaren eta bere erakunde autonomoen finantza-egoera nagusiekin. Seigarren eta azken atalean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Horiez gainera, bi eranskin daude: bata, Udalak 2010eko ekitaldiko kontuei buruz eginiko Memoria duena, eta bestea, Barañaingo Auditorioa Fundazioaren balantzeari eta emaitzen kontuari buruzkoa.

Eskerrak ematen dizkiegu Barañaingo Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei lan honetan emandako laguntzagatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearekin eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Barañaingo Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin da.

Txosten honen helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Barañaingo Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorrak ondarearen irudi zehatza erakusten duen alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokionez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontularitza-printzipio eta irizpideei jarraituz.

b) Udalak eta haren erakunde autonomoek 2010ean izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Barañaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza-egoera 2010eko abenduaren 31n.

d) Ganbara honek 2009ko ekitaldiari dagokion txostenean eman zituen aholkuak noraino bete diren.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzat jotzen diren aholkuak, udalak eta haren erakunde autonomoek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

III. IRISMENA

Comptos Ganberak Barañaingo Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Udalaren Kontu Orokorra entitatearen beraren kontuak eta haren erakunde autonomoenak osatzen dute, eta honako egoera-orri finantzarioak biltzen ditu, besteak beste:

- Erakundearen beraren kontua eta haren erakunde autonomiadunena: Aurrekontuaren likidazioa, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta udalaren diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta gale-aren eta irabazien kontua.

- Kontu Orokorraren eranskinak: oroitidazkia, Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontu bateratua, zorraren egoera eta kontu-hartzailtzaren txostena.

Indarrean den legediaren arabera, Barañaingo Auditorioa Fundazioaren kontuak Udalaren Kontu Orokorrean sartzen ez badira ere, txosten honen eranskin gisa jarri ditugu.

Erakunde autonomoen kudeaketa administratiboa eta kontularitzari eta aurrekontuari dagokiona modu deszentralizatuan egiten da.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren Fiskalizazio Eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak bildu dira; prozedura horien barruan, laginketaren teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili da.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoei dagokienez, bai beren aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia, bai aplikaturiko oinarritzko prozedurak berrikusi dira; eta ebaluatu dira antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako oinarritzko alderdiak.

IV. IRITZIA

Egindako lanaren norainokoarekin bat, Barañaingo Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2010eko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzeko eta haren edukia osatzeko ardurua Udalarena da, eta kontua laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure azterketa-lanetik ondoko iritzia ondorioztatu dugu:

IV.1. 2010EKO EKITALDIARI DAGOKION UDALAREN KONTU OROKORRA.

Ondasunen inbentarioa 1992koa da, eta oraindik eguneratu gabe dago; horregatik, ezinezkoa izan da Egoera Balantze bateratuko "Ibilgetuaren" saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatzea; saldo hori, 2010eko abenduaren 31n, 33,36 eurokoa zen.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Barañaingo Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorrak alderdi behin-etan leialki irudikatzen du bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren

arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren arabera, Udalaren eta haren erakunde autonomoen jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasunaren printzipioari jarraituz egin dela esan daiteke.

IV.3. 2010EKO ABENDUAREN 31KO EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

2010eko hasierako aurrekontua onetsi zenean, gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspena 16,52 milioikoa zen, baina aurreikuspen horiei 2,36 milioi erantsi behar zaizkio, aurrekontuan izan diren aldaketak direla-eta.

Aitortutako eskubideak 17 milioikoak dira, eta betetze-maila ehuneko 90ekoa; aurreko ekitaldiari dagokionez, gastu horiek ehuneko 12 egin dute behera -2,2 milioi-.

Aitortutako eskubideek 18,1 milioi pezeta hartzen dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 95ekoa da. 2009. urtearekin alderatuta, ehuneko bost egin dute behera -0,9 milioi-.

Gastuei dagokienez, gastu orokorrek gastu osoaren ehuneko 81 osatzen dute, eta 2009. urtekoarekin alderatuz gero, ehuneko lau egin dute behera; beherapen horren arrazoi nagusia langileen gastuak gutxitzea izan da -ehuneko bost-, defizit publikoa murrizteko neurri bereziei buruzko 12/2010 Foru Legea aplikatuta.

Benetako inbertsioen gastuak 2,88 milioikoak dira, aurreko urtekoak baino ehuneko 36 gutxiago. 2010ean Estatuko Funtsak inbertsioetarako baliabide gutxiago eman ditu -2,11 milioi, eta 2009an, berriz, 3,8 milioi- eta hori da beherapen horren arrazoi nagusia.

Diru-sarrera arruntak 2009. urtekoaren antzekoak izan badira ere, zerga-bidezkoak ehuneko lau igo dira.

Diru-laguntzen mendekotasun-ehunekoa diru-sarrera guztiari dagokionez, ehuneko 60koa da, edo ehuneko 42koa diru-sarrera arruntei baino erreparatzen ez badiegu.

Laburbilduz, koadro honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren gastu bateratuko 100 eurotik bakoitza:

Gastuen izaera	Zenbatekoa	Finantzabidea	Zenbatekoa
Langileak	46	Zerga bidezko diru-sarrerak	40
Bestelako gastu arruntak	35	Transferentziak	60
Inbertsioak	17		
Finantza-zama	2		
	100		100

Aurrezki gordina 954.575 eurokoa da, 2009ko urtekoa baino ehuneko 157 gehiago. Aurrezki garbia, berriz, 638.942 eurokoa izan zen, 2009ko ekitaldiko 4.188 euroko balio negatiboaren aurre.

Ekitaldiak 1.350.945 euroko aurrekontu-emaitza doitu du. 2009an, emaitza hori negatiboa izan zen: 187.616 euro.

2010eko Diruzaintzako Guztizko Gerakina, era berean, positiboa da (428.199 euro); aurreko urtean, aldiz, negatiboa izan zen (598.124 euro). Gastu Orokorretarako Diruzaintza Gerakina edo hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko ahalmena neurtzen duen adierazlea positiboa izan zen: 428.199 euro. 2009an, aldiz, saldoa negatiboa izan zen: 884.883 euro. Taula honetan adierazten da zer bilakaera izan duten kopuru horiek azken urteotan:

	2008	2009	2010	Aldea (%) 09/08	Aldea (%) 10/09
Diruzaintzako gerakina, guztira	-273.739	-598.124	428.199	% 119	% 240
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-465.686	-884.883	428.199	% 90	% 307

Edonola ere, gastu orokorretarako diruzaintzako geldikina, 2010. urtean, negatiboa izan da, 93.863 euro; hala ere, nabarmen egin du behera 2009. urtekoari buruz, hura nabarmen murriztu baita 2009ko balioari dagokionez, hura ere negatiboa, 1,37 milioi.

Likidotasun-premiei aurre egiteko, Udalak diruzaintzako kreditu bat du hitzartua, 1,4 milioikoa; 2010eko abenduaren 31n ez zuen ia zenbatekorik erabili.

2010eko abenduaren 31n zor bizia 2,77 milioikoa zen, eta 2009an, berriz, 3,1 milioikoa. Zor horrek ohiko diru-sarreraren guztizkoari buruz osatzen duen ehuneko 18 ingurukoa da, legezko mugaren oso azpitik, ehuneko 75ekoa baita muga; muga horrek baldintzatzen du, gaur egun, zor berriak hartzeko aukera. Zorpetze horren ondoriozko finantza-zamak gastuaren guztizkoaren ehuneko bi osatzen du.

Zorpetzearen muga ekonomikoa 2010ean ehuneko 6,46koa da; 2010ean zorpetze-maila ehune-

ko 2,14ra iristen da. Beraz, Udalak zorpetzeko ahalmen ekonomikoa ehuneko 4,33koa da.

Azken batean, Barañaingo Udalaren finantza-egoera 2010ean hobetu egin da Ganbera honek aurreko txostenetan ikusitako joeraren aldean. Langileen eta inbertsioen alorreko gastuak nabarmen murriztea eta ohiko diru-sarrerei eustea izan dira hobekuntza horren arrazoi nagusiak. Eta horren ondorioz, ekitaldiko aurrekontuaren emaitzak superabita izan du, eta diruzaintza-gerakina positiboa izan da. Era berean, zor biziaren bolu-mena arrazoizko mailan dago; izan ere, zorpetzeko tarte edo gaitasun ekonomikoa du oraindik ere.

IV.4. 2009KO TXOSTENEN AHOLKUEN JARRAIPENA

Ganbera honek 2011ko otsailean argitaratutako 2009ko ekitaldiko txostenari dagokionez, oraindik zintzilik daude, besteak beste, txosten honen IV. atalean adierazten den bezala, garrantziko aholku hauek:

- *Aurrekontua legez aurreikusitako epean prestatu eta onestea, kudeaketarako oinarrizko tresna izan dadin.*

- *1992ko udal-inbentarioa eguneratu eta onestea.*

- *Erakunde autonomoek egindako eragiketen gaineko barne-kontrola.*

- *“Baraberi S.L.” merkataritza-sozietatearen egoera argitzeko behar diren neurriak hartzea.*

- *Erakundearen bideragarritasuna epe ertainera eta epe luzera bermatuko duen plan ekonomiko-finantzario bat osatzea.*

Ondorioz, eta laburpen gisa, Barañaingo Udalak eten egin zuen 20010ean Ganbera honek bere aurrekontuen kitapen defizitarioari eta diruzaintza-geldikinaren balio negatiboari buruzko azken txostenetan erakutsitako joera.

Egoera positibo hori, funtsean, honako hauek eragina da: krisiaren kontrako neurriak aplikatuta langileen gastuak murriztu dira, gainerako gastu arruntei eutsi zaie eta inbertsioetako gastuak nabarmen murriztu dira.

Diru-sarrerei dagokienez, aipagarria da gaur egun Nafarroako udalerrien artean banatu beha-

rrero transferentzien bolumenari buruz dauden zalantzen ondorioz –Barañainen, bertako diru-sarera arrunten ehuneko 40 inguru iturri horretatik dator–, finantza-zailtasunak sor daitezkeela etorkizun hurbilean, nahiz eta 2010ean zerga bidezko diru-sorrerek jokabide positiboa izan duten –ehuneko 4 egin dute gora–.

Bestalde, hirigintza-kudeaketaren ikuspegitik, Barañaingo planeamendua ia erabat agortuta dago, salbuespena izanik Eulzako Jaurerriko proiektua gauzatzen den edo ez.

Beraz, eta finantza-egoera berri hori ez dadin egoeraren araberakoa izan eta epe ertainera Udalaren bideragarritasun ekonomikoa ziurtatu dadin, beharrezkoa da Udalak, plan egokiaren bitartez, hainbat neurri aplikatzea, gastu arruntei eutsi ahal izateko eta diru-sarrerak sortzeko ahalmena handitzeko aukera emango diotenak. Baina hori guztia kudeaketa hobetzeko neurriak hartu beharra ahaztu gabe, besteak beste honako alderdi hauek: tarifak eta prezioak zerbitzuaren kostura egokitzea, inbertsioen lehentasunak ezartzea, dirulaguntzen politika berrikustea, zenbait zerbitzuren tamaina aztertzea, nahitaezkoak ez diren zerbitzuek beren burua finantzatzea, etab.

V. KONTU OROKORRAREN LABURPENA 2010

V.1. AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

Gastuak kapitulu ekonomikoaren arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreik.	Aitortutako betebeharrak .	Exekutatua (%)	Ordaintzak	Ordaintzetak (%)	Ordaintzeko dagoena
1.Langile-gastuak	8.433.667	20.056	8.453.724	7.784.803	% 92	7.584.230	% 97	200.573
2.Gastuak, ond. arrunt. eta zer.	5.664.814	4.400	5.669.214	5.197.843	% 92	4.510.966	% 87	686.877
3.Gastu finantzarioak	110.416	(14.000)	96.416	32.883	% 34	32.883	% 100	-
4. Transferentzia aruntak	882.850	8.600	891.450	829.681	% 93	710.514	% 86	119.168
6.Inbertsio errealak	1.149.168	2.345.169	3.494.337	2.880.496	% 82	2.559.099	% 89	321.397
9.Finantza-pasiboak	282.750	-	282.750	282.750	% 100	282.750	% 100	-
GUZTIRA	16.523.665	2.364.225	18.887.890	17.008.456	% 90	15.680.441	% 92	1.328.015

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoaren arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreik.	Aitortutako eskubideak	Exekutatua (%)	Kobrantzak	Kobrantzetak (%)	Kobratzeko dagoena
1.Zuzen. zergak	3.391.500	-	3.391.500	3.539.260	% 90	3.369.374	% 95	169.886
2.Zehark. zergak	173.900	-	173.900	198.578	%114	169.894	% 86	28.684
3.Tasak eta best. diru-sarrerak.	3.475.939	-	3.475.939	3.453.341	% 99	3.316.121	% 96	137.219
4.Transf. aruntak	8.123.408	20.056	8.143.464	7.538.824	% 93	7.155.700	% 95	383.124
5.Ondare bidezko diru-sarrerak	48.700	-	48.700	36.899	% 76	36.199	% 98	700
6.B. errealen besterentzea	308.910	-	308.910	-	-	-	-	-
7.7 Kapital transferentziak	1.001.308	2.344.169	3.345.477	3.311.890	% 99	3.051.157	% 92	260.733
GUZTIRA	16.523.665	2.364.225	18.887.890	18.078.792	% 93	17.098.447	% 95	980.345

V.2. AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2010eko ekitaldia	2009ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	18.078.792	18.995.858
- Aitortutako betebeharrak	-17.008.456	-19.230.518
= AURREKONTU-EMAITZA	1.070.336	-234.660
DOITZEAK		
- Finantzaketaren desbideraketa positiboak	-	-274.419
+ Finantzaketaren desbideraketa negatiboak	280.609	321.463
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	-	-
= AURREKONTU-EMAITZA DOITUA	1.350.945	-187.616

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

Kontzeptua	2010eko ekitaldia	2009ko ekitaldia
+ KOBRAZKEKO DAUDEN ESKUBIDEAK	1.244.607	2.304.987
(+) Diru-sarrerren aurrekontua. Aurtengo ekitaldia	980.345	1.776.567
(+) Diru-sarrerren aurrekontua. Itxitako ekitaldiak	746.276	1.097.051
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	133.529	50.422
+ Ordainketen itzulketak	-	-
- Bilketa zaileko eskubideak	-615.543	-618.952
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-	-101
- ORDAINTZEKO DAUDEN BETEBEHARRAK	3.389.538	4.768.395
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.328.015	1.793.412
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	40.362	57.740
+ Diru-sarrerren itzulketak	-	-
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	2.021.221	2.917.361
- Aplikatzeko dauden gastuak	-60	-118
+ DIRUZAINZTAKO FUNTS LIKIDOAK	2.573.131	1.865.284
(+) Finantziazio-desbideratze metatu negatiboak	-	-
= DIRUZAINZTA-GERAKINA, GUZTIRA	428.199	-598.124
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa duten gastuak direla-eta	-	286.759
Diruzaintza-gerakina, gastu atxikiak direla-eta	-	-
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	428.199	-884.883

V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

AKTIBOA

	Deskribapena	2010	2009
A	IBILGETUA	33.359.238	30.479.686
1	Ibilgetu materiala	24.047.478	21.822.759
2	Ibilgetu ez-materiala	472.868	214.784
3	Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	8.838.892	8.442.143
H	ZIRKULATZAILEA	4.433.517	4.789.907
8	Zordunak	1.860.326	2.924.504
9	Kontu finantzarioak	2.573.191	1.865.403
	AKTIBOA, GUZTIRA	37.792.755	35.269.593

PASIBOA

	Deskribapena	2010	2009
A	FUNTS BEREKIAK	31.624.928	27.445.719
1	Ondarea eta erreserbak	15.483.927	15.146.598
2	Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	1.438.219	337.329
3	Kapitaleko diru-laguntzak	14.702.782	11.961.792
H	EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	2.891.611	3.055.259
4	Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailuak	2.891.611	3.055.259
D	EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	3.276.215	4.768.615
5	Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	3.276.215	4.768.514
6	Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	-	101
	PASIBOA, GUZTIRA	37.792.755	35.269.593

V.5. GALERA ETA IRABAZI BATERATUEN KONTUA (*)

Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKOA		
DESKRIBAPENA	2010	2009	DESKRIBAPENA	2010	2009
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Amaierako Erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	2.804.967	2.815.154
61 Langileen gastuak	7.780.724	8.220.093	71 Ondarearen eta Enpresaren Errenta	510.986	520.288
62 Gastu finantzarioak	32.883	92.757	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko zergak	2.453.785	2.395.965
63 Zergak	0	0	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	967.244	964.729
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	5.252.066	5.207.101		0	0
65 Gizarte-prestazioak	9.945	10.522	75 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	7.543.124	7.759.409
67 Transferentzia arruntak	774.682	898.337	77 Kapitalaren gaineko zergak	315.305	127.666
68 Kapital-transferentziak	0	18.063	78 Bestelako diru-sarrerak	745.188	195.574
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	0	0	79 Daukaten helbururako aplikaturiko hornikuntzak	0	0
Ustiapen-mozkina	1.490.297	331.913	Ustiatze-galerak	0	0
GUZTIRA	15.340.597	14.778.786	GUZTIRA	15.340.597	14.778.785

Ekitaldiko emaitzak

DESKRIBAPENA	2010	2009	DESKRIBAPENA	2010	2009
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.490.297	331.913
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	0	0	82 Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (Saldo zorduna)	63.556	0	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (Saldo zorduna)	1.328	5.416
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	1.428.069	337.329	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
GUZTIRA	1.491.625	337.329	GUZTIRA	1.491.625	337.329

* 2010. urterako, Ganbera honek egina.

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA AHOLKUAK.

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsu bakoitzerako Comptos Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen ondorioztapen eta aholku nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2010. ekitaldirako aurrekontua 2010eko otsailean onartu zen lehenbizi, eta 2010eko apirilean behin betiko.

Hasierako aurrekontu horrek aldaketa nabarmena izan du -2,3 milioi- bertan Estatuko Funtsak Tokiko Enplegurako eta Iraunkortasunerako finantzatutako proiektuak sartu direlako bertan. 2010eko abenduaren 31 ondoren, 33.000 euroko kreditu-transferentziak ere onartu dira.

Erakunde autonomoen kudeaketa administratiboa eta kontularitzari dagokiona modu deszentralizatuan egiten da, barne-kontrolerako udal-organoen parte-hartzerik gabe. Horien jarduna *a posteriori* egiten da, eta aurrekontuaren eta haren kitapenaren espedientearen azterketan jartzen du arreta.

Udalaren ondasunen inbentarioa 1992koa da, eta ez zen modu formalean onetsi, eta ez da gaurkotu ere.

Udala zenbait prozedura judizialetan sartuta dago, baina, hark eskainitako informazioan oinarrituta, kasuan kasu izan ditzakeen ondorio ekonomikoek ez dute eragin ekonomiko nabarmena izango.

Gure aholkuak:

- *Aurrekontua legez aurreikusitako epean prestatu eta onestea, kudeaketarako oinarritzko tresna izan dadin.*

- *Kreditu-aldaketak kreditu-premiak sortzen diren unean -eta ez gero- izapidetzeko aukera emango duten prozedurak ezartzea.*

- *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok egon behar du barne-kontrol ekonomikoaren eta legezkoaren mende.*

- *Udal-inbentarioa onartzea, eta dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko alden eta bajeen jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzeko eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko aukera emango duena.*

- *Egoeraren balantzeko ibilgetuari dagozkien kontusailletako kontabilitate-saldoak berrikustea eta, hala badagokio, erregularizatzea, entitatearen ondarearen osaera behar bezala erakuts dezan.*

VI.2 LANGILEAK

Langileen ataleko gastu bateratua 7,78 eurora iristen da; hau da, 2010ean sortutako gastu guztien ehuneko 46 eta gastu arrunten ehuneko 56. 2009ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu horrek ehuneko 5 egin du behera.

Kapitulu honetako betebeharrak aitortuak 6,42 milioikoak izan dira Udalean, 592.435 euro "Lagunak" udal-zerbitzuan eta 765.273 euro "Luis Morondo" Musika Eskolan.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoaren osaera, aurrenekoz 2010eko otsailean onartua eta 2010eko ekainaren 11n behin betiko onespina argitaratua, honako hau da:

Erakundea	Lanpostuak, guztira	Lanpostu hutsak
Udala	118	2
Lagunak Udala Zerbitzua	23	7
Luis Morondo Musika Eskola	22	3
Guztira	163	12

2010eko ekitaldian, lanpostu hutsak ehuneko 7 inguru izan dira, 2009ko ekitaldiko egoeraren guztiz bestelakoa, ordukoan onartutako plantilla organikoaren barruan lanpostu hutsen ehunekoa 26 ingurukoa baitzen.

2010eko lan-eskaintza publikoa, 2010eko azaroaren 15ean onartua eta Nafarroako Aldizkari Ofi-

zian 2011ko urtarrilaren 7an argitaratua, Lagunak Udal Zerbitzura mugatu zen eta 4 lanpostu hutsek osatu zuten.

Abenduaren 31n honako hauek ziren Udalaren langileak:

Udala	Kopurua
Goi-karguak	1
Izendapen librea	4
Funtzionarioak	25
Langile finkoak	55
Administrazio kontratudunak	15
Aldi baterako lan kontratudunak	33
Babestutako enplegu soziala	9
Oinarrizko errentaren hartzaileak	6
Udala, guztira	148

Plantillako lanpostu kopuruaren eta abenduaren 31n benetan lanean diharduten langileen artean dagoen aldea plantillaren barruan sartuta ez dauden lanpostuek eragina da: gizarte-enplegutik, oinarrizko errentatik, ordezkarietatik, jardunaldi-murriztapenetatik eta abarretik sortutako aldi baterako kontratazioei erreferentzia egiten diete.

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, ordainsariak betetako lanpostu-etarako erabakitakoak direla eta egindako atxikipe-nak zuzenak direla.

Gastuen beherapena	Udala	Musika Eskola	Lagunak	Guztira
Enplegatuak	331.487	17.103	11.306	342.796
Zinegotziak	3.784	-	97	3.881
Guztira	335.271	17.103	11.403	363.777

Udalean aurreztutakoa Diruzaintza Gerakin negatiboa murrizteko baliatu zen. Bestalde, "Luis Morondo" Musika Eskolak adierazi du aurreztutakoa diru-sarreraren aurrekontua konpentsatzeko erabili zela, Nafarroako Gobernuaren eskutik diru-laguntza gutxiago jaso baita; "Lagunak" Udal Zerbitzuak adierazi du, halaber, aurreztutakoa ez dela ezertarako bideratu, eta inbertsioen kontusailko gerakinean gorde dela. Erakunde Autonomoen aplikazio horiek ez dira aipatutako araudian kontuan hartzen.

2010ean langileen kontuak zirela eta Udala tartekoa zen hainbat prozedura judizialen ondoriozko hainbat gorabehera konpondu dira, eta horien ondorioz 30.000 euro baino gehiago ordaindu ditu.

Azkenik, egiaztatu dugu Udalak betetzen duela ekainaren 11ko 12/11 Foru Legeak agintzen duena, zeinaren arabera Nafarroako Foru Komunitatera egokitzen diren defizit publikoa gutxitzeko neurri bereziak. 2010ean, Udaleko eta Erakunde Autonomoetako langileen gastuen beherapenak honako hauek izan dira, zehatz-mehatz:

VI.3. GASTUAK ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntetan eta zerbitzu bateratuetan eginiko gastuak 5,20 milioi eurokoak izan dira; horietatik 3,70 milioi udalari dagozkio, 1,33 milioi euro "Lagunak" udal-zerbitzuari, eta 167.364 euro "Luis Morondo" musika-eskolari.

Gastu horiek ekitaldiko guztizko gastuen ehuneko 31 osatzen dute eta gastu arrunten ehuneko

38. 2009 ekitaldiarekin alderatuta, gastu horiek ehuneko 0,4 igo dira.

2010eko ekitaldian esleitutako honako kontratazio-espeditenteak aztertu ditugu: (BEZa kenduta).

Deskribapena	Kontratu-mota	Prozedura	Eskaintzak	Lizitazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren zenbatekoa	Erabilitako zenbatekoa
Instalazio elektrikorako obraren proiektua eta zuzendaritza	Laguntza	Irekia, KUtik beherakoa	3	40.827	32.640	32.363
Etxez etxeko arreta, abuztutik abendura	Laguntza	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	3	23.835	22.500	17.334
Udal-eraikinak lotzeko sistema ahots eta datuetarako	Hornidura	Irekia, KUtik beherakoa	4	158.966	156.271	155.212
Liburutegi berrirako higarriak eta ekipamendua	Hornidura	Negoziatua, Europar Batasuneko publizitaterik gabekoa	8	90.000	84.835	84.835

Espeditente horiei eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketaren ondorioz, gastuak justifikatuta daudela, behar bezala kontabilizatu direla eta egokiro izapidetu direla egiaztatu da, eta ez dela aplikatzekoa den araudiaren urraketa garrantzitsurik antzeman.

VI.4. INBERTSIOAK

2010erako inbertsio-aurrekontu bateratuaren ehuneko 82 gauzatu da, eta 2,88 milioiokoa da.

Inbertsioak	2009	2010	Aldea (%) 2010/2009
Estatuko Funtsa	3.480.379	2.415.925	- 31
Gainerako inbertsioak	958.996	347.004	- 64
Inbertsioak, guztira Udalean	4.439.375	2.762.929	% - 38

Inbertsio guztietatik, Udalak ehuneko 96 egin ditu (2,76 milioi). "Lagunak" udal-zerbitzuaren inbertsioak 100.018 eurokoak izan dira; eta "Luis Morondo" musika-eskolakoak, berriz, 17.548 eurokoak.

Gastu horrek ekitaldian aitortutako betebeharren gutzizkoaren ehuneko 17 hartzen du. 2009. urtearen aldean, ehuneko 36 jaitsi da.

Estatuko funtsetatik iritsitako finantzaketa urte horietarako murriztea eta gainerako inbertsioen bolumen txikiagoa dira Udalean beherapen horren oinarritzko arrazoiak. Hona hemen:

Kapitulu honetako gastu-lagin bat eta udalaren honako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira 2010ean: (BEZa kanpo)

Deskribapena	Kontratu-mota	Prozedura	Eskaintzak	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa	Erabilitako zenbatekoa
Alaiz Ikastetxe Publikoko lehoiak aldatzea	Eraikuntzalaria	Irekia, europar batasuneko atalasetik behera	5	183.220	128.254	128.254
Udal-kiroldegiaren eraikuntza	Eraikuntzalaria	Irekia, europar batasuneko atalasetik behera	10	646.552	611.649	635.165
Eulza Ikastetxeko Kiroldegiko teilatuaren berrikuntza	Eraikuntzalaria	Europar Batasunean publizitaterik egin gabeko prozedura negoziatua	5	52.055	49.190	49.190

Analisi horretatik ondorioztatu da bete egiten dela, oro har, kontratazio-araudia, espedienteak izapidetzean, haiek esleitzean eta haiek gauzatzean.

VI.5 DIRU-SARRERAK

Eskubide aitortu bateratuak 2010eko ekitaldian 18,08 milioiokoak izan dira, eta horietatik 15,41 milioi Udalarri dagozkio, 2,07 milioi "Lagunak" udal-zerbitzuari eta 0,6 milioi "Luis Morondo" Musika Eskolari.

Bateraturiko diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko 82 (14,8 milioi euro) eragiketa arruntengatiko diru-sarrei dagozkie, eta ehuneko 18 (3,7 milioi euro) kapital-eragiketeki.

Eragiketa arruntetan, zerga bidezko diru-sarrek ehuneko 49ra iristen dira (7,2 milioi euro), eta transferentzia arruntak ehuneko 51ra (7,5 milioi euro).

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuaren betetze-maila ehuneko 95ekoa izan da. Kapitulu gehienak ehuneko 90etik gorakoak dira, ondarearen diru-sarreraren kapituluak –ehuneko 76koa– eta inbertsio errealean besterentzeen kapituluak –burutu gabe– izan ezik.

2009. urtearekin alderatuta, aitortutako betebeharrak ehuneko 5 egin dute behera, kapital-transferentzien beherapenaren ondorioz bereziki. Kapitulu ekonomikoen arabera, honakoa da aldaketa:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak (2010)	Aitortutako eskubide garbiak (2010)	Aldea 2010/2009
1 Zuzeneko zergak	3.539.260	3.346.224	% 6
2 Zeharkako zergak	198.578	142.136	% 40
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3.453.341	3.429.389	% 1
4 Transferentzia arruntak	7.538.824	7.759.409	% -3
5 Ondarearen diru-sarrerak	36.899	29.627	% 25
Diru-sarrera arruntak	14.766.902	14.706.785	% 0
6 Inbertsio errealean besterentzea	0	327.888	% -100
7 Kapital-transferentziak	3.311.890	3.961.185	% -16
Kapitalaren diru-sarrerak	3.311.890	4.289.073	% -23
8 Finantza-aktiboak	0	0	-
9. Finantza-pasiboak	0	0	-
Finantza-eragiketen ondoriozko diru-sarrerak	0	0	-
Diru-sarrerak, guztira	18.078.792	18.995.858	% -5

Udal-zergei dagokienez, horien bilakaera erakusten da taula honetan:

Kontzeptua	2010	2009	Aldea (%) 2010/2009
Lurraren gaineko kontribuzioa	2.017.333	2.003.496	1
Ibilgailuak	967.244	964.729	-
Lurren balio gehikuntza	316.809	127.666	148
JEZ	237.874	250.332	-5
EIOZ	198.578	142.136	40

Zerga horiei aplikatutako tasak honako hauek dira:

	2/95 FL	Udala, 2010
Lurraren gaineko kontribuzioa	0,10 eta 0,50 bitarte	0,246
JEZ	1 eta 1.4 bitarte	1,4
Lurren balio gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2tik 3,8ra	3
Karga-tasa	8 eta 20 bitarte	11,55
EIOZ	2 eta 5 bitarte	5

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten azterketa egin ondoren, oro har egokiro izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu,.

VI.6. HIRIGINTZA

Barañaingo Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza eta Ingurumen Alorra izeneko organo baten bitartez. Bertako jardueretarako honako langile hauek izendatu dira:

- Arkitekto tekniko 1
- 2 administrari
- Hirigintzako lantaldearen arduradun 1

Horrez gainera, udalak kanpoko aholkularitza-kontratu hauek ditu formalizatuta:

- ingeniaritzako enpresa 1; haren zerbitzuetarako 2010eko ekitaldian 10.072 euroko betebeharrak aitortu ziren.

- hirigintzako enpresa 1; haren zerbitzuetarako 2010eko ekitaldian 34.038 euroko betebeharrak aitortu zitzaizkion.

Barañaingo Udaleko hirigintza-antolamenduko plan orokorrari 1991ko martxoan eman zitzaion behin betiko onespena.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak (LFOTU) hiru urteko epea ezarri zuen 2006ko apirilera bitartean planeamendu indardunak homologatzeko eta egokitzeko. 2010eko abenduaren 31n, Udalak ez dio inolako prozedurari ekin aipaturiko foru legeak xedatutakora moldatzeko.

Alabaina, 2010eko otsailaren 25ean, Udalaren Osoko Bilkurak Barañaingo lurzorua udal-ondarearen erregistroa eratu zuen, eta horren berariazko inbentarioa ezartzea erabaki zen; 2010eko abenduaren 31n ez du gai horri buruz jardura gehigarririk egin.

Gure aholkuak:

- *Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenetara moldatzea hirigintza-plangintza.*

- *Lurzorua Udala Ondarea eratzea eta kudeatzea udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, sarrerak eta irteerak erregistratuz, bai lursaillei bai eskudiruari dagozkienak, eta hura indarrean den araudian ezarritako xedeetarako erabiltzea.*

VI.7. "BARABERRI S.L." MERKATARITZA-SOZIETATEA

2004ko azaroan, udalak bere onespena eman zion "Baraberi S.L." sozietate mugatuaren eraketari, zeinaren kapital osoa udalarena den. Haren xedea hirigintza-garapeneko zerbitzuen eta Barañainen Garapen Integralerako Zerbitzuan sarturiko zerbitzu ekonomikoen kudeaketa da.

Sozietatearen kapitala 9.000 eurokoa da. 2006ko irailaren 13an, Udalak zenbateko hori gordailatu zuen, hark sozietate-kapitalari eginiko ekarpenaren ordainketa gisa, banku bateko kontu batean, hain zuzen ere "Baraberi S.L. en constitución" izenekoan.

Banku-entitatea sozietatea eratzeko eskrituren kopia jasotzeko zain dago, eta kontu horretan eutsi die funtsei.

Kontu-hartzaitzatik egoera hori argitzeko zenbait urrats egin dira azken urteotan, eta ondorioztatu da 2006an notaritzara eramandako dokumentuetako bat iraingita zegoela, eta horregatik ezin izan zela sozietatearen eraketa eskritura publikora eraman.

Gure aholkuak:

- *Ganbera honek behin eta berriro adierazi bezala, dagozkion neurriak hartzea "Baraberi S.L." merkataritza-sozietatearen egoera behin betiko argitzeko.*

VI.8. BARAÑAINGO AUDITORIOA FUNDAZIOA

2003ko urtarrilaren 17an, Barañaingo Udalak "Fundación Auditorio Barañain / Barañain Auditorio Fundazioa" delakoa eratu eta babestu zuen. Haren xedea da Barañaingo Arte Eszenikoen Zentroa, udalarena, kudeatzea eta administratzea.

2010eko ekitaldiko kontu laburtuak –txosten honen I. eranskin gisa erantsi direnak– kanpoko profesional batek berrikusi ditu, modu mugatuan; profesional horrek kontratazioen inguruko gaietan eta urteko kontuen aurkezpenarekin zerikusia dutenetan jarri du, funtsean, arreta.

2010eko abenduaren 31n, Fundazioaren langileak 8 ziren guztira; ez da, beraz, aurreko ekitaldiari buruz aldaketarik izan. Langile horien ordainsarriari 12/2010 Foru Legean ezarritako beherapena aplikatu zaie.

Fundazioak, 2010eko ekitaldian, 751.242 euroko diru-sarrerak izan ditu, eta 750.932 euroko gastuak; beraz, 310 euroko superabita izan du.

Udalak Barañaingo Auditorioa Fundazioari 2010erako eginiko ekarpena, aurrekontuko kontusail izendun batean aurreikusia, 2010eko ekainaren 9an formalizatu zen, hitzarmen-programa baten bidez, eta 50.000 eurokoa izan zen; 2009an, ekarpen hori 25.000 eurokoa izan zen.

2010eko abuztuaren 31n, Udalak eta Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat sinatu zuten, zeinaren bidez Gobernuak 2010ean guztira 450.000 euroko ekarpena egiteko konpromisoa hartu zuen, auditorioaren jarduerak finantzatzeko; 2009an ekarpen hori 200.000 eurokoa izan zen. Dirulaguntzaren igoera horrek instalazioak Nafarroako Orkestra Sinfonikoari doan lagatzeko konpromisoa dakar berarekin.

2010eko abenduaren 31n, fundazioaren kontabilitate-ondare garbia positiboa zen, 100.575 euroko zenbatekoarekin (2009ko abenduaren 31n, 100.265 euro positiboa). Ez dago epe luzeko zorrik (24.470 euro 2009an) eta maniobra-funtsa (aktibo arrunta ken pasibo arrunta) negatiboa da, 17.368 euro.

Gure aholkuak:

- *Udalaren eta Barañaingo Auditorioa Fundazioaren artean hitzarmenak formalizatzea, dagokion ekitaldia hasi aurretik.*

- *Fundazioaren urteko kontuak Udalaren kontu orokorrari erantsia, eranskin gisa gutxienez.*

José Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean den araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2011ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

II. ERANSKINA FUNDACIÓN AUDITORIO BARAÑÁIN/BARAÑÁIN AUDITORIOA FUNDAZIOA

2010eko abenduaren 31ko egoera-balantze laburtua

AKTIBOA		
	2010-12-31	2009-12-31
Aktibo ez-arrunta		
Ibilgetu materiala	117.943	165.516
Aktibo arrunta		
Erabiltzaileak eta berezko jardueraren beste zordun batzuk	112.500	24.199
Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	64.219	23.623
Epe laburreko ekintzak	1.050	1.050
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	24.937	46.353
	202.706	95.225
Aktiboa, guztira	320.649	260.741
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA		
	2010-12-31	2009-12-31
Ondare garbia		
Funts berekiak	100.575	100.265
Sorrerako zuzkidura	736.250	736.250
Aurreko ekitaldietako soberakinak	-635.985	-636.250
Ekitaldiko soberakina	310	265
	100.575	100.265
Pasibo ez-arrunta		
Epe luzeko zorrak	0	24.470
Finantza-errentamendu bidezko hartzekodunak	0	
		24.470
Pasibo arrunta		
Epe laburreko zorrak	28.641	41.639
Finantza-errentamendu bidezko hartzekodunak	28.641	40.639
Epe laburreko beste zor batzuk	0	1.000
Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzekoak diren beste kontu batzuk	191.433	94.367
Beste hartzekodun batzuk	191.433	94.367
	220.074	136.006
Ondare garbia eta pasiboa, guztira	320.649	260.741

2010eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiaren emaitza-kontu laburtua

Deskribapena	2010	2009
Entitateak bere jardueraren ondorioz dituen diru-sarrerak	529.711	346.345
Sustapen, babesle eta laguntzaileak direla eta izaniko diru-sarrerak	79.711	146.345
dirulaguntzak, dohaintzak eta ustiapen-legatuak, jarduerari berari eragindako ekitaldiari egotziak	450.000	200.000
Salmentak eta merkataritza-jardueraren ondoriozko beste diru-sarrera batzuk	184.490	279.542
Bestelako ustiatzeen ondoriozko diru-sarrerak	36.450	0
Langile-gastuak	-300.929	-311.282
Bestelako ustiatze-gastuak	-400.481	-257.840
Ibilgetuaren amortizazioa	-47.573	-50.112
USTIATZEAREN EMAITZAK	1.668	3.841
Finantza diru-sarrerak	591	1
Gastu finantzarioak	-1.949	-3.577
FINANTZA-EMAITZA	-1.358	-3.576
ZERGA AURREKO EMAITZAK	310	265
Mozkinen gaineko zerga	0	0
EKITALDIKO SOBERAKINA	310	265

Eguesibarreko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko azaroaren 21ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Eguesibarreko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Eguesibarreko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Aitzinsolasa (21. or.).
 - II. Helburua (25. or.).
 - III. Irismena (25. or.).
 - IV. Iritzia (26. or.).
 - IV.1. Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorra (26. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (26. or.).
 - IV.3. Udalaren 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoera (26. or.).
 - IV.4. 2090ko txosteneko gomendioen jarraipena (27. or.).
 - V. 2010eko kontu orokorraren laburpena (29. or.).
 - V.1 2010eko Aurrekontuaren betetze-egoera (29. or.).
 - V.2. 2010eko ekitaldiko aurrekontu-emaizta (30. or.).
 - V.3. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2010eko abenduaren 31n (30. or.).
 - V.4. Egoera-balantze bateratua (Udala eta Andacelay, SL) (31. or.).
 - V.5. Galeren eta Irabazien Kontu bateratua (Udala eta Andacelay, SL) (32. or.).
 - VI. Iruzkinak, ondorioak eta aholkuak (33. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak (33. or.).
 - VI.2. Langileak (34. or.).
 - VI.3. Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak (35. or.).
 - VI.4. Inbertsioak (36. or.).
 - VI.5. Sarrerak (37. or.).
 - VI.6. Gorabeherak (38. or.).
 - VI.7. Hirigintza (38. or.).
 - VI.8. Andacelay, SL sozietate publikoa (39. or.).
 - VI.9. Gestión y Promoción Egüés 21, SA eta Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL bitariko sozietateak (41. or.).
 - I. Gehigarria. "Gestión y Promoción Egüés 21, SA" bitariko sozietatearen 2010eko ekitaldiari dagozkion egoera-balantze laburtua eta galeren eta irabazien kontu laburtua (43. or.).
 - II. Gehigarria: "Gestión y Promoción Egüés 21-II, SI" bitariko sozietatearen 2010eko ekitaldiari dagozkion egoera-balantze laburtua eta galeren eta irabazien kontu laburtua (45. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (47. or.).
- Eguesibarko Udaleko Alkateak egindako alegazioei Comptos Ganberak emandako erantzuna (48. or.).

I. AITZINSOLASA


2011rako bere jarduera-programari jarraituz, Comptos Ganberak Eguesibarko Udalaren 2010eko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Eguesibarko Udalak 53,57 km² ditu; Altzuza, Ardanatz, Azpa, Badoztain, Egues, Elkano, Elia, Ibiriku, Olatz eta Sagasetako kontzejuak, Etxalatz, Amokain, Erantsus, Elizmendi eta Egulbatiko jauzerriek eta Uztarroze, Gorraitz eta Sarrigurengo herriguneez osatzen dute.

2010eko urtarrilaren 1ean, 14.370 biztanle zituen; horietatik, ehuneko 85 Sarrigurenen eta Eguesen bizi dira. Azkeneko urte hauetan biztanleriaren hazkunde handia izan du udal honek, hirigintza-garapen nabarmen baten ondorioz, ondoko koadro honetan garbi ikusten den bezala:

Urtea	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Biztanleak	5.379	7.079	9.137	10.787	14.354	16.202
Aldaketa, 2006arekin alderatuta		% 32	% 70	% 101	% 167	% 201

Eguesibarko Udalaren eta haren mendeko erakundeen osiera ondoko irudi honetan ageri dena da:



Honako hauek dira entitate horien guztien datu ekonomiko nagusiak 2010eko ekitaldiaren itxieran:

- Administrazio publikoaren arloa:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 2010-12-31n
Udala	10.343.005	9.653.865	106

• Sozietate publikoak. 2004ko urrian, Udalak Andacelay, SL udalaren hirigintza-sozietatea sortu zuen, bazkide bakarra Udala duela. Sozietate honek ehuneko 51rekin hartzen du parte honako sozietate misto hauetan: “Gestión y Promociones

Egüés 21, SA” eta “Gestión y Promociones Egüés 21-II, SL”; bi sozietate horietan bazkide pribatu bera da. Hauek dira sozietate horien datu nagusiak:

Enpresa publikoak	Sarrerak	Gastuak	Langileak, 2010-12-31n	Ekitaldiko emaitzak
Andacelay, SL	6.614.465	3.175.948	-	3.438.517
Gestión y Promoción Egüés 21, SA	2.666.362	2.592.870	-	73.492
Gestión y Promoción Egüés 21 II SL	5.712.196	5.712.196	-	0

Sozietate hauek Udaletxean dute beren egoitza soziala.

Udal hau Iruñerriko Mankomunitateko kidea da, eta haren bitartez eskaintzen ditu ondoren adierazten diren zerbitzu hauek:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2010ean
Uraren ziklo integrala eta Hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua	106.819
Eskualdeko hiri-garraioa	231.673
Ibai-parkearen kudeaketa	36.560
Guztira	375.052

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri direnak dira:

Udal Zerbitzuak	Udala	Merkataritza-sozietate osoa	Mankomunitatea/Partzuergoa	Zerbitzu-kontratuak	Errenta mendua	Merkataritza-sozietate mistoak
Administrazio orokorrak	zerbitzu	X				
Oinarrizko gizarte-zerbitzua		X				
Etkez etxeko laguntza-zerbitzua		X				
0-3 urte bitartekoen harren eskolak				X		
Musika-eskola		X				
Hirigintza		X	X			X
Lorategiak		X		X		
Hiri-hondakinak			X			
Ur-hornidura			X			
Garraio publikoa			X			
Liburutegia-Ludoteka		X				
Konsumitzailearen arreta zerb.				X		
Kaleen eta Bideen mantentze-lanak		X				
Kirolak		X				
Kirol-jardueren kudeaketa				X		
Udal-polikiroldegiak					X	
Podologia		X				
Babestutako enplegu soziala		X				
Diru-bilketa exekutiboa				X		
Familien Arreta Zentroa				X		
Familien Arreta Zentroko laguntza juridikoa				X		

Toki-entitate honi aplikatzekoa den araubide juridikoa honako arau hauek osatzen dute, funtsean:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langile-riaren Estatutuaren Testu Bategina.

- Langileen Estatutuari buruzko 1/1995 Errege Lege Dekretua.

- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena.

- Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu Legea, Enplegurako eta Tokiko Iraungarritasunerako Estatuko Funtza sortu zuena.

- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Udalaren 2010eko aurrekontuaren exekuzio-oinarriak eta gainerako barne arauak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne hartuta. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako fiskalizazio-lanaren norainokoa. Laugarrenean, Udalaren Kontu Orokorrari buruz dugun iritzia. Bosgarrenean, Eguesibarko Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Seigarren eta azkenekoan, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta -kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioak eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo, eta Andacelay, SL Udalaren hirigintza-sozietatearen eta haren partaidetza duen sozietatearen azterketa bat ere jasotzen da.

Horrez gainera, Gestión y Promoción Egüés 21, SA eta Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL bitariko sozietateen 2010eko urteko kontuen bi laburpen-eranskin eskaintzen dira, informazio modura.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Eguesibarko Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua honako gai hauei buruzko dugun iritzia adieraztea da:

a) Gure iritzian, Eguesibarko Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitu zen urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

b) Eguesibarko Udalak 2010an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Eguesibarko Udalaren 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoera.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan emandako aholkuak noraino bete diren.

Txosten honekin batera, Udalak ezarritako barne kontroleko sistema, sistema administratiboa

eta kontabilitate- eta kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

III. IRISMENA

Comptos Ganberak Eguesibarko Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Kontu horrek osagaiok ditu:

- Entitatearen beraren kontua: aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina eta egoera-balantzea.

- Andacelay, SL hirigintza-sozietatearen urteko kontuak.

- Kontu orokorraren eranskinak: txostena, zorraren egoera, kontu-ikuskaritzaren txostena eta tokiko erakunde guztien (Udalaren eta Andacelay, SL hirigintza-sozietatearen) kontu bateratua.

Udalak ez ditu sartu formalki Kontu Orokorraren eranskin gisa, 272/1998 Foru Dekretuaren 392. arauak agintzen duen bezala, Gestión y Promoción Egüés 21, SA eta Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL, Andacelay, SL-k ehuneko 51ko partaidetza duen bi sozietate mistoei dagozkien datuak. Nolanahi ere, sozietate horien urteko kontuak osagarritzko informazio gisa atxikitzen dira Kontu Orokor horren espedientean.

Zorraren egoeran ere ez dira aipatzen udal-sozietateen kreditu-operazioak.

Lan hau Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz eta azterlan honen helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz egin da, laginen teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa aplikatuz, besteren artean. Zehazki, Udalari dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiboak aztertu dira; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontroleko alderdi nagusiak ere ebaluatu dira.

Andacelay, SL sozietatearen eta Gestión y Promoción Egüés 21, SA eta Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL bitariko sozietateen 2010eko urteko kontuek badute kanpoko kontu-ikuskatzaileek egindako finantzen kontu-ikuskaritzaren txosten bat. Sozietate hauen eragiketa nagusiek, Sektore Publikoko entitateak diren aldetik, aplikatzekoak zaizkien lege-printzipioak, administrazio-kontrata-

zioari dagozkionak, batez ere, eta Udalak kontratazio horiekiko aplikatu behar dituen kontrol-mekanismoak betetzen dituzten begiratzea izan da batez ere sozietate hauei dagokienez egin dugun lana.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren irismenari segokion bezala, Eguesibarko Udalaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea eta kontuaren beraren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure azterketan oinarriturik, honako iritzi hau ateratu dugu:

IV.1. UDALAREN 2010EKO EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

- Ez dago segurtasunik enpresa batek Gorraitzten apartamentu-hotel bat eraikitzeke baimena kendu zitzaiolako jarritako ondare-erantzukizuneko erreklamazio-epaiaren kontra Udalak jarritako auzi-errekurtsoa zertan bukatuko den. Kontrako errekurtsoa jarri zaion Udalaren kontrako sententziak 6,96 milioi eurotan zehazten du ondare-erantzukizun hori.

Aurreko paragrafoan aipatutako zalantza hori zertan bukatzen den ezagutzeko gero doikuntzaren bat egin beharra izanez gero, zer eragin izango duen kanpoan utzita, Udalaren 2010eko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorrak zehazki jasotzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Hala ere, hura egoki interpretatzeko eta ulertzeko behar den informazio guztia biltzen du, informazio finantzario publikoari dagokionez aplikatzeko den arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, har-

tan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpi-deen arabera.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren irismenaren arabera, entitatearen jardura ekonomiko finantzarioa, oro har, legezkotasun printzipioari jarraituz egin da; hala ere, kontratazio administratiboari dagokionez indarrean dagoen araudiaren zenbait puntu ez direla bete ikusten da, kontratu-aldaketako espediente batzuk tramitatu ez direlako batez ere.

Andacelay, SL sozietate publikoak isilpekotasunari dagozkion arrazoiak aipatuz, ez ditu jasotzen txostenean sozietate horretako administrazio-kontseiluko kideek –administrazio-kontseilua Udaleko ordezkari ez dago osatuta– talde horretakoak ez diren baina helburu soziala antzekoa edo analogoa duten beste sozietate batzuetan izan litzaketen karguak. Informazio-akats horrek salbuespen bat sortzen du enpresa horri buruz enpresa pribatu batek prestatutako ikuskaritza-txostenean.

IV.3. UDALAREN 2010EKO ABENDUAREN 31KO FINANTZA-EGOERA

2010eko hasierako aurrekontua 7,6 milioi eurokoa zen; behin betiko aurrekontua 10,8 milioi eurokoa da (2009an 9,8 milioi eurokoa zen), aurrekontuetan 3,2 milioi euroko aldakuntzak egin direlako; aldaketa horiek egiazko inbertsioei (2,5 milioi euro) eta horien finantzaketari dagozkie, batez ere.

2010ean aitorturiko betebeharrak 10,3 milioi eurokoak izan dira (2009an 8,8 milioi eurokoak) eta aitorturiko eskubideak, berriz, 9,7 milioi eurokoak (2009an 8,6 milioi eurokoak).

Koadro honetan adierazten da, gastuko 100 eurotik, zertarako erabili den eta nola finantzatu den euro bakoitza:

Gastuen izaera	Zenbatekoa	Finantzabidea	Zenbatekoa
Langileak	35	Tributu bidezko diru-sarrerak	58
Bestelako gastu arruntak	36	Transferentziak	39
Inbertsioak	25	Ondare bidezko diru-sarrerak	3
Finantza-zama	4		
	100		100

Eginkizunen sailkapenaren arabera, sei zerbitzuz⁽¹⁾ Udalaren gastu arrunten ehuneko 77 konsumitzen dute: segurtasuna eta udaltzaingoa, ehuneko 16; oinarrizko gizarte-zerbitzua, ehuneko 15; haurtzaindegiak eta haur-eskolak, ehuneko 10; musika-eskola, ehuneko 10; lorategiak, parkeak eta berdeguneak, ehuneko 12; eta kirolak, ehuneko 14.

2009ko ekitaldiarekin alderatuta, gastuek ehuneko 17 egin dute gora, eta diru-sarrerak, berriak, ehuneko 12. Gastuen izaerari dagokienez, gastu arrunten ehuneko 6 egin dute gora eta diru-sarrera arrunten ehuneko 20; diru-sarrera hauei dagokienez, EIOZ aipatu nahi dugu bereziki, 1,1 milioi izatetik 1,6 milioi izatera igo baita, ehuneko 53 gehiago.

Kapital-gastuei dagokienez, ehuneko 64ko igoera izan da, 2009koekin alderatuz; kapitaleko diru-sarrerak, berriz, ehuneko 29 jaitsi dira.

Ekitaldia ixtean, aurrekontuko emaitza bateratu dituzte 501.855 euroko superabita erakutsi du. Emaitza hori defizitarioa izan zen 2009an (245.178 euro).

Aurrezki gordina (diru-sarrera arruntak ken funtzionamendu-gastuak) positiboa izan zen 2010ean (1,3 milioi euro); 2009an, berriz, 310.321 eurokoa izan zen. Aurrezki garbia (aurrezki gordina ken finantza-zama) orobat hobetu da, 2009an -50.286 eurokoa izatetik 2010ean 905.912 eurokoa izatera aldatu baita.

Diruzaintzako gerakina, 3,5 milioi eurokoa da guztira (2009an 4,4 eurokoa izan zen). Gastu Orokorretarako diruzaintza-gerakina edo hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko ahalmena neurtzen duen adierazlea positiboa izan zen: 3,3 milioi euro (2009an 3,7 milioi euro izan ziren).

Udalaren eta Andacelay, SL udal-sozietatearen balantzeko eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak 10,2 euro ziren 2010eko abenduaren 31n (-11,9 milioi euro 2009an). Likidezia-gaindikin hauekin, enpresa honek munta handiko inbertsioak finantzatu ditu Udalaren alde.

Epe luzeko zorra 300.124 eurokoa zen 2010eko abenduaren 31n (2009ko abenduaren 31n 720.732 eurokoa zen). Zor bizi hori erakunde honen diru-sarrera arrunt guztien ehuneko 30 da; portzentaje hori gaur egun zor berriak egiteko dagoen legezko muga, ehuneko 75, baino askoz ere beherago dago. Zorpetze-maila ehuneko

4,87koa da; maila horrek oraindik ere zorrak hartzeko ehuneko 10,5ko gaitasuna duela esan nahi du.

Ekitaldiko onura finkatua 4,9 milioikoa da; 2009an, aldiz, 0,6 milioi euroko emaitza izan zen.

Laburtuz, bada, Udalaren finantza-egoeraren ezaugarria da diruzaintza-gerakin handia daukala, aurreko ekitaldietako hirigintza-jarduerak sortua funtsean. 2010eko ekitaldian, diru-sarrera arruntak aski izan dira eskaintako zerbitzuen funtzionamendu-gastuak finantzatzeko; kapital-operazioen zati bat, aldiz, diruzaintza-gerakinaz baliatuz finantzatu dira, eta hortik heldu da diruzaintza-gerakina ehuneko 20 jaitsi izana. Etorkizunari begira, kontuan hartu beharko da populazio-hazkundeak eta inbertsio berriak mantentzeak aurrekontuan izan dezaketen eragina.

IV.4. 2090KO TXOSTENEN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Eguesibarko Udalar buruzko aurreko fiskalizazio-txostena, 2009ko ekitaldiari zegokiona, 2011n argitaratu zen. Horri dagokionez ondoko aholkuok bete direla edo ezartze-fasean direla adierazi behar dugu:

- *Udalaren eta haren partaidetzako merkataritza-sozietatearen kontu bateratua Udalaren Kontu Orokorrean jasotzea.*

- *Udalaren Lurzoru-ondareari dagozkion lege-zehaztapenak betetzea.*

- *Aurrekontu-aldaketako espedientearen kontu-ikuskaritzaren nahitaezko txostena eranstea.*

Oraindik betetzeke daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, aholku garrantzitsu hauek, besteak beste:

- *Administrazio-kontratazioari buruzko araudia zorrozki betetzea, espedienteak formalizatzeari buruzko alderdi batzuei dagokiena batez ere.*

- *Udalaren kontu orokorrean Udalak partaidetzaren gehiengoa duen Gestión y Promoción Egüés 21, SA eta Gestión y Promoción Egüés 21 II, SL bitariko sozietateei buruzko datuak, eranskin gisa, jasotzea.*

- *Udalak bere antolamendua erabakitzeko duen ahalmena eta egokien iritzitako hirigintza kudeaketako modua hautatzeko duen autonomia gorabehera, jarduera hori hirigintza-sozietateen*

(1) Toki entitateek herritarrei ematen dizkieten zerbitzu nagusien kostuak kalkulatzeko Toki Administrazioiko Departamentuak garranturiko aplikazio informatikotik eskuratutako datuen arabera.

bidez kudeatzeko egungo modua, eta kudeaketa modu hori Udalak bilatu beharreko interes publikoari ongi egokitzen zaion aztertzea.

- *Udal kapitaleko sozietateen kontratu-jardueran nahitaez ezarri behar diren kontratazio-printzipio orokorrak errespetatzea.*

- *Udalak bizi izan duen populazio-igoera dela eta, gaur egungo zerbitzuak ematearen ondorioz nahiz inbertsio berrien ondorioz aldaketa horrek izango duen eragina balioestea.*

Horren guztiaren ondorioz, azken laburpen gisa, Eguesibarko Udalak oso finantza-egoera ona du gaur egun, udal barruti horretan azkeneko urte hauetan egin diren hirigintza-jarduera handiek eragindako diru-sarreraren ondorioz batez ere.

Eraikuntzaren sektorea nozitzen ari den krisi-egoerak, Nafarroako udalen artean banatzeko transferentzien zenbatekoari dagokionez ikusten ari diren zalantzek, inbertsio berrien funtzionamendu-gastuek eta udalerrri honetan kokatuko den biztanleria berriaren ondorioz eman beharko diren zerbitzuen emendioak izan lezakete eragina finantza-egoera horretan. Horregatik, Udalak bere gastu arruntak urritzeko eta baliabide arruntak sortzeko gaitasuna handitzeko balioko dion plan ekonomiko-finantzario bat ezarri beharko luke, gure iritzian; tarifak eta prezioak zerbitzuaren kostura egokitzeko, egiteko inbertsioei lehentasuna ematea, dirulaguntzetarako politika berrikustea, zenbait zerbi-

tzuren tamaina aztertzea, ematen dituen eta nahitaezkoak ez diren zerbitzuek beren burua finantzatzea eta beste zenbait alderditan kudeaketa hobetzeko neurriak hartzea ahaztu gabe, hala ere.

Beste alde batetik, hirigintzaren eremuari dagokionez, Udalak udal-enpresa publiko bat sortu zuen eremu hori kudeatzeko (Andacelay), baina ez zuen hornitu ez giza baliabidez ez kudeaketa-baliabide bereziz. Enpresa horren bidez, Udalarentzako berarentzako inbertsio handiak egin ditu, alde batetik, 2008-2010 bitartean -7,3 milioi euro guztira (BEZa gabe)-; eta, bestetik, bitariko bi sozietate eratu ditu -giza eta kudeaketa baliabiderik gabeak hauek ere- kudeaketa-komisio baten truke bi sozietateak kudeatzen dituen eta, horrez gainera, 348 etxebizitza babesturen promozioa egiteko eta eraikitzeke kontratuen esleipenduna den bazkide pribatu berarekin. Bitariko enpresa misto horiek Udalaren lur-ondareko lur-zatietan egiten dute eraikuntza-jarduera hori, Udalak udal enpresa publikoari doan laga eta sozietateok hari erositako lur zatietan.

Comptos Ganberak azkeneko tostenetan behin eta berriro azpimarratu duen bezala, Udalak ongi aztertu beharko luke ea hirigintza kudeatzeko gaur egungo eredu horrek ongi betetzen dituen kudeaketa publikoaren goiburuak izan beharko luketen interes publikoaren, gardentasunaren eta kontrolaren printzipioak.

V. 2010EKO KONTU OROKORRAREN LABURPENA

V.1 2010EKO AURREKONTUAREN BETETZE-EGOERA.

2010eko ekitaldia
Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebehar garbiak	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa (%)	Ordaintzeke dagoena
Langileen lansariak	3.708.550	-67.900	3.640.650	3.646.363	% 100	3.575.533	70.830
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2.688.140	248.250	2.936.390	2.895.451	% 99	2.291.523	603.928
Interesak	0	240	240	238	% 0	238	0
Transferentzia arruntak	585.120	212.082	797.202	766.975	% 96	715.909	51.066
Inbertsio errealak	266.400	2.468.903	2.735.303	2.604.820	% 95	1.351.005	1.253.815
Kapital-transferentziak	6.600	303.951	310.551	8.551	% 3	8.551	0
Finantza-aktiboen aldatetak	0	0	0	0	% 0	0	0
Finantza-aktiboen aldateta	361.000	60.000	421.000	420.607	% 99	420.607	0
Gastuak, guztira	7.615.810	3.225.526	10.841.336	10.343.005	% 95	8.363.366	1.979.639

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Kobratua	Kobratzeke
Zuzeneko zergak	2.345.110	69.000	2.414.110	2.612.630	% 108	2.429.346	183.284
Zeharkako zergak	885.165	0	885.165	1.631.306	% 184	819.847	811.459
Tasak eta bestelako diru- sarrerak	931.155	153.000	1.084.155	1.379.449	% 127	1.236.061	143.388
Transferentzia arruntak	2.840.430	31.500	2.871.930	2.693.348	% 94	2.508.450	184.898
Ondare bidezko diru-sarrerak	340.950	0	340.950	318.813	% 94	293.336	25.477
Inbertsio errealak besterentzea.	273.000	0	273.000	200	% 0	0	200
Kapital-transferentziak	0	1.323.467	1.323.467	1.018.119	% 77	843.606	174.513
Finantza-aktiboen aldatetak	0	1.648.559	1.648.559	0	% 0	0	0
Finantza-aktiboen aldateta	0	0	0	0	% 0	0	0
Diru-sarrerak guztira	7.615.810	3.225.526	10.841.336	9.653.865	% 89	8.130.646	1.523.219

V.2 2010EKO EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2010eko ekitaldia	2009ko ekitaldia
+ Aitorturiko eskubide garbiak	9.653.865	8.614.879
- Aitorturiko betebeharrak garbiak	-10.343.005	-8.832.491
= AURREKONTU EMAITZA	-689.140	-217.612
DOITZEAK		
- Finantzaketaren desbideraketa positiboa	-172.314	-653.213
+ Finantzaketaren desbideraketa negatiboa	761.661	0
+ Diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak	601.648	625.647
= AURREKONTU-EMAITZA DOITUA	501.855	-245.178

V.3 DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2010EKO ABENDUAREN 31N

Kontzeptua	2010eko ekitaldia	2009ko ekitaldia
+ KOBRAZKEKO DAUDEN ESKUBIDEAK	1.825.385	2.245.550
+ Diru-sarreraren aurrek: Aurtengo ekitaldia	1.523.041	1.382.932
+ Diru-sarreraren aurrek: Itxitako ekitaldiak	1.340.108	1.276.132
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	224.020	628.482
+ Ordainketen itzulketak	150	0
- Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	-3.627	-3.883
- Nekez kobratzeko eskubideak	-1.258.307	-1.038.113
- ORDAINTZEKO DAUDEN BETEBEHARRAK	-2.294.312	-1.199.281
- Gastu-aurrek: Aurtengo ekitaldia	-1.979.639	-879.095
- Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	-15.656	-44.229
- Diru-sarreraren itzulketak	-66.626	-66.803
+ Aplikatzeke dauden gastuak	628	496
- Aurrekontuz kanpoko gastuak	-233.019	-209.650
+ DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK	3.912.963	3.308.847
+ Finantziario-desbideraketa metatu negatiboak	108.448	0
= DIRUZAINZAKO GERAKINA, GUZTIRA	3.552.484	4.355.116
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	0	653.213
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	208.877	0
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	3.343.607	3.701.903

V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA (UDALA ETA ANDACELAY, SL)

AKTIBOA

Deskribapena	2010eko ekitaldia	2009ko ekitaldia (*)
A IBILGETUA	53.487.343	49.399.760
1 Ibilgetu materiala	36.617.629	36.323.501
2 Ibilgetu ez-materiala	455.920	412.544
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	16.185.371	12.436.873
4 Herri-ondasunak	36.241	36.241
5 Ibilgetu finantzarioa	192.182	190.601
C ZIRKULATZAILEA	21.389.091	18.334.404
7 Izakinak	7.180.460	2.484.612
8 Zordunak	4.031.383	3.953.596
9 Kontu finantzarioak	10.177.248	11.896.196
AKTIBOA, GUZTIRA	74.876.434	67.734.164

PASIBOA

Deskribapena	2010eko ekitaldia	2009ko ekitaldia (*)
A FUNTS BEREKIAK	70.884.462	64.670.937
1 Ondarea eta erreserbak	60.750.189	57.294.194
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	4.914.565	518.227
3 Kapitaleko diru-laguntzak	5.219.708	6.858.516
C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	300.124	720.732
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailuak	300.124	720.732
D EPE LABURRERAKO HARTZEKODUNAK	3.691.848	2.342.495
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	3.688.221	2.338.613
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	3.627	3.882
PASIBOAREN GUZTIZKOA	74.876.434	67.734.164

(*) 2009an, egoera hori ez da bateratuta azaltzen, entitate bakoitzerako banaka baizik.

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA (UDALA ETA ANDACELAY, SL)

Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKO		
DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA, 2010	ZENBATEKOA, 2009 (*)	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA, 2010	ZENBATEKOA, 2009 (*)
3 Hasierako izakinak	2.490.542	2.490.542	3 Bukaerako izakinak	7.187.390	2.490.542
60 Erosketak	7.781.024	0	70 Salmentak	4.697.009	727.749
61 Langile-gastuak	3.743.561	3.631.036	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	910.942	421.933
62 Gastu finantzarioak	238	0	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	3.552.649	2.862.253
63 Tributuak	9.690	1.317	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	394.298	327.378
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpo zerbitzuak	2.880.185	2.692.264	75 Ustiapeneko diru-laguntzak	2.484.612	0
65 Gizarte prestazioak	0	0	76 Transferentzia arruntak	2.693.349	2.396.374
66 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	296.989	389.530
67 Transferentzia arruntak	766.975	581.507	78 Bestelako diru-sarrerak	392.478	463.077
68 Kapital-transferentziak	8.551	47.472	79 Beren helbururako aplikaturiko hornidurak	0	0
69 Amortizazio eta horniduretarako hornidura	571	571			
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	4.928.379	634.127	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
GUZTIRA	22.609.716	10.078.836	GUZTIRA	22.609.716	10.078.836

Ekitaldiko emaitzak

ZORRA			HARTZEKO		
DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA, 2010	ZENBATEKOA, 2009 (*)	DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA, 2010	ZENBATEKOA, 2009 (*)
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	4.928.379	634.127
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	12.066	0	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	1.748	115.900	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	4.914.565	518.227	89 Galera garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	0	0
GUZTIRA	4.928.379	634.127	GUZTIRA	4.928.379	634.127

(*) 2009an, egoera hori ez da bateratuta azaltzen, entitate bakoitzerako banaka baizik.

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA AHOLKUAK

Ondoren adierazten dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitza banan-banan hartuta, gure iritzian, Udalak dituen antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko beretzat hartu behar dituen ondorio eta aholkuak nagusiak.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2010eko ekitaldirako aurrekontuari 2009ko azaroaren 1eko Osoko Bilkuran eman zion Udalak behin-behineko onarpena, eta 2009ko otsailaren 2an sartu zen indarrean, behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenean.

Aurrekontu Orokorraren espedienteak ez du jasotzen 270/1998 Foru Dekretuak eranskinen zerrendari buruz aurreikusitako dokumentazio guztia, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari, langileei buruzko eranskinari, Udalaren urteko eta lau urteko inbertsioei buruzko eranskinari eta osoki edo gehienbat bere mendeko diren merkataritza-sozietateei buruzko informazioari buruzkoa batez ere.

Aldaketa gehienak inbertsioen kapituluari buruzkoak dira, zeina, 266.400 euroko hasierako kredituak izatetik 2,7 milioi euroko behin betiko aurrekontua izatera igaro baita (kapital-transferentzien bidez eta diruzaintza-gerakinaren bidez finantzatzen dira).

Atxikitze juridikoaren poltsak ez dira kapitulu guzti-guztietan beti-beti bete. Gastuen aurrekontuko 1. kapituluaren "Langile-gastuak"– aitorturiko betebeharrak behin betiko kredituek baino 5.713 euro gehiago egiten dute.

Kontu Orokorraren eranskinean ez daude jasota Gestión y Promoción Egüés 21, SA, eta Gestión y Promoción Egüés 21 II, SL sozietatearen urteko kontuak. Halaber, zorraren egoera-orriak ez du informaziorik jasotzen kapital osoa edo gehiena Udalak duen merkataritza-sozietateen kreditu-eragiketei buruz. Nolanahi ere, sozietate horien urteko kontuak osagarritzko informazio gisa atxikitzen dira Kontu Orokorraren horren espedienteetan.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorrak ezartzen du ezen, diru-laguntzak eman aurretik, toki-korporazioek aurrekontuaren betetze-oinarrien esparruan onetsi beharko dituztela diru-laguntzen ematea arautzen duten oinarriak, dela diru-laguntzei buruzko ordenantza orokor baten bitartez, dela diru-laguntzen modalitate bakoitzerako berariazko ordenantza baten bitartez. Orobat agintzen du, 8. artikuluan,

diru-laguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko direla plan hori aplikatuz lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko beharko den epea, aurrez ikus daitezkeen kostuak eta horretarako finantzabideak, aurrekontuaren egonkortasun-helburua betetzearen mende jarriko betiere. Udalak ez du diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eta Plan Estrategikorik.

Fiskalizazio-lana egin den bitartean, gabeziak detektatu dira zenbait espedientearen dokumentazioaren gaineko kontrolari, kudeaketari eta artxibatzeari dagokienez. Zenbait kasutan, ezin izan dugu egiaztatu kontratazio-espedientei eta beste arlo batzuei buruzko araudiaren arabera egon beharko lukeen dokumentazioa egiaz badagoenik.

Gure aholkuak:

- *Udalaren aurrekontu orokor bakarra onestea, indarrean dagoen legerian ezarrita dauden epeei eta edukiari jarraituz.*

- *Kasuan kasuko aurrekontu-aldaketak izapidetzea eta onestea, aurrekontuko diru-esleipenak aski ez baldin badira.*

- *Kontu Orokorra osatzea, Gestión y Promoción Egüés 21, SA eta Gestión y Promoción Egüés 21 II, SL bitariko sozietateei buruzko datuak eranskin gisa jasoz.*

- *Zorren egoera-orrian aurkeztea legez araututa dagoen informazioa Udalaren partaidetza duten merkataritza-sozietateei –Andacelay, SL, Gestión, Promoción Egüés 21, SA eta Gestión y Promoción Egüés 21 II, SL– buruz.*

- *Diru-laguntzen plan estrategiko bat prestatzea, plan horren helburuak, ondorioak, aurrez ikusitako kostuak, aurrez ikusten diren baliabideak eta abar zehaztuz.*

- *Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onestea.*

- *Dokumentazioa kudeatzeko eta artxibatzeko prozedura eraginkorrak ezartzea, eta dokumentazio osoa artxibatzeko artxibo orokor bat sortzeko aukera aztertzea.*

- *Administrazioko alor bakoitzeko arduradunek, espedienteak eta egin beharreko jarduerak direla-eta araudi indardunak eskatzen duen dokumentazioa behar bezala betetzen dela ikuskatzea.*

- *Udalaren kontu orokorretan kontabilitate publikoaren planak agintzen duen Memoria sartzea.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen kapituluan aitorturiko betebeharrak 3,6 euro egiten dute; alegia, 2010eko ekitaldian sorrarazitako gastu guztien ehuneko 35 eta gastu arrunten ehuneko 50.

2009ko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 3koa izan da igoera. Hona, gastu horiek artikuluko ekonomikoen arabera bereizirik:

	2010ean aitorturiko betebeharrak	2009an aitorturiko betebeharrak	Aldea 2010/2009
10 Goi karguak	78.856	81.832	- % 4
12 Langile funtzionarioak	1.115.859	1.085.670	% 3
13 Langile kontratudunak	1.379.120	1.300.693	% 6
16 Kuotak, prestazioak eta gizarte gastuak	1.072.528	1.063.427	% 1
GUZTIRA	3.646.363	3.531.622	% 3

Gorakada hori aldi baterako langile gehiago kontratatu direlako gertatzen da batez ere.

Goi-karguen ordainsarrietan lanaldi osoa duten bi zinegotziren lansaria, ehuneko 80ko lanaldia duen zinegotzi batena eta udalbatza osoaren istripu-asegurua sartzen dira. Aipatutako zinegotzien lansariak, Udalbatzaren Osoko Bilkuraren erabakiz, PFEZ zerga ordaintzetik salbuetsita daude ehuneko 30ean –bi kasu– eta ehuneko 60an –kasu bat–. Salbuetsita dauden kopuru horiek Gastuen 2. kapituluan sartzen dira, zinegotzientzako dietetan.

Langile funtzionarioei dagokienez, batez ere udaltzainek egindako ordu estrak ugaldu direlako gertatu da ordainsarien gorakada.

Udalaren plantilla organikoan 83 lanpostu daude guztira; horietatik ehuneko 43 inguru hutsik daude; horren ondorioa da, hain zuzen, aldi baterako kontratazioak asko izatea.

Hala, esate baterako, 2010eko abenduaren 31n 106 pertsona ari ziren lanean Udalean, honela banatuta:

Langileak	Kopurua
Zinegotziak	3
Funtzionarioak	25
Lan-kontratudun finkoak	15
Izendapen librekoak	1
Kontratu administratiboa dutenak	35
Aldi baterako lan- kontratudunak	27
Guztira	106

2009ko abenduarekin alderatuta, 17 langile gehiago daudela ikusten da, aldi baterako kontratupeko langileak batez ere.

Plantillako langileen eta abenduaren 31n egiaz lanean ziharduen langile-kopuruaren arteko aldea enplegu sozialeko, ordezkapenetako eta abarretako kontratazioek eta bertan jasota ez dauden lanpostuek eragina da.

2010eko ekitaldian lanpostuak osatzeko bi deialdi egin dira:

- Langile sozial baten lanpostua lan-kontratu hornitzeko oposizio-lehiaketa bat.
- Lorezaintzako peoi baten lanpostua lan-kontratu hornitzeko oposizio-lehiaketa bat.

Aipatu diren bi espedienteak aztertu ditugu, eta aplikatzekoa den araudia oro har behar bezala bete dela iruditu zaigu.

2010eko ekitaldiko langileria-gastuen lagin bat aztertuta ikusi da, oro har, behar bezala betetzen dela indarrean dagoen araudia, behar bezala kontabilizatuta daudela, ordaintzen diren lansariak betetako lanposturako ezarritakoak direla eta egiten diren atxikipenak zuzenak direla. Nolanahi dela ere, esan beharra dugu Plantilla Organikoaren eta lanpostuen zerrendaren berrikusketan (2011ko

ekainaren 15eko NAO) zenbait akats atzeman direla eta Udalari adierazi zaizkiola, zuzendu dituzan.

Azkenik, ekainaren udal honek 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituen betetzen duela egiaztatu dugu. Langilariari dagozkion gastuen beherakada, Udalari dagokionez, honelakoa izan da 2010eko ekitaldian:

Langileria-gastuen beherakada	Zenbatekoa	Xedea
Enplegatuak	55.809	Maileguen amortizazioa
Zinegotziak	3.500	Maileguen amortizazioa
Guztira	59.309	Maileguen amortizazioa

Gure aholkuak:

- *Plantilla Organikoan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, Plantilla Organikoa egiazko premietara egokitzen den egiaztatzeko.*

- *Indarrean dagoen araudiaren baitan, aurrekontuetan zuzkidura berezia duten eta hutsik dauden lanpostu guztiak enplegu-eskaintza publikoan sartzea.*

- *NAOn argitaratu baino lehen Plantilla Organikoaren eta lanpostuen zerrendaren azterketa*

sakon bat egitea, egiazko errealitatearekin ados etorriko den informazio osoa eman ahal izateko.

- *Langileen kontratazio-espeditenteen kontrol bat edukitzea eta artxibatzea.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUAK

Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak 2,9 milioi eurokoak izan dira 2010an; alegia, ekitaldiko gastu guztien ehuneko 28 eta gastu arrunten ehuneko 40 izan dira. 2009. urtearen aldean, ehuneko 5 igotzera banatzen dira kapitulua:

	2010an aitorturiko betebeharrak	2009an aitorturiko betebeharrak	Aldea 2010/2009
Errentamenduak	34.371	72.430	% -53
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	557.801	515.114	% 8
Materialak, horniketak eta beste	2.209.051	2.067.405	% 7
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	94.228	97.729	% -4
Guztira	2.895.451	2.752.678	% 5

Gorakada hau haurtzaindegi berri bat zabaltzeko eragindako gastuak eta ikastetxe berri baten urte osoko gastuak sartu izanak eragiten du. Errentamendu-gastuak Udalak herritarren arretaz zerbitzurako alokatuta zeuzkan lokal batzuk utzi izanak jaitsi ditu.

2010eko ekitaldian ez da nabarmentzeko moduko diru kopururen adjudikaziorik egin, eta ondoren aipatzen diren kontratazio-espeditente

hauek baizik ez dira atera enkantean (BEZa gabe):

- Haurrentzako jolasak Sarrigurenen; esleipenaren zenbatekoa 22.006 eurokoa izan da. Prozedura irekia.

- Egulbatiko kanpamentua; esleipenaren zenbatekoa 18.345 eurokoa izan da. Prozedura negoziatua, publikotasunik gabea.

Kapitulu honetan erregistratu diren gastuen lagin batez egin den azterketatik egiaztatu denez, dagokien fakturen bidez justifikaturik daudela eta behar bezala kontabilizatu direla ikusi da. Alabaina, ondorengo puntu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Errepikatzen diren zenbait gastu halako zenbaterora iristen dira urte amaieran, non kontratazio-espeditentea abiarazi beharko bailitzateke hala koentzat, baina inguruabar hori ezin izaten da betiere zentzuz aurreikusi.

- Zenbait kontratutan (kirol-jarduerak bideratzeko laguntza eta Udal aretoak eta gelak garbitzea) aitortutako gastuaren zenbatekoa esleipeneko baino ehuneko 50 eta ehuneko 20 handiagoa izan da. Gaur egun indarrean dagoen araudiaren arabera, lehenengo kasuan beste kontratazio-prozedura bat abiarazi beharko litzateke, eta bigarrenaren kontratuaren aldaketa bat egin beharko litzateke.

Gure aholkuak:

- *Urteko gastuen bolumena alde aurretik balioets daitekeen kasuetan, kontratazio-espeditenteak izapidetzea.*

- *Aitortutako gastuaren zenbatekoak esleipeneko kopuruak indarrean dagoen araudiak jartzen dituen mugez gainetik gainditzen dituenean lizitazio berriak egitea edo kontratuak aldatzea.*

VI.4. INBERTSIOAK

2010rako aurrekontuko inbertsioen kapituluaren betetze-maila ehuneko 95ekoa izan da (2,6 milioi euro, guztira). Gastu honek ekitaldi honetan aitortutako betebeharren ehuneko 25 egiten du.

2009an erregistratutako inbertsioen aldean (1,6 eurokoak izan ziren), ehuneko 63ko igoera izan da.

Kapitulu honetako gastuen lagin bat eta ondoren aipatzen diren kontratazio-espeditenteak aztertu dira (zenbatekoak BEZik gabe agertzen dira):

Deskribapena	MOTA	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenen kopurua	Esleipenaren zenbatekoa
Familien Arretarako Zentroaren proiektua erredaktatzea, zuzentzea, hornitzea eta obra egitea	Obrak	Irekia eta urgentziazko izapidetzea	680.884	8	663.862
Sarrigurenako Ikastetxe Publikoko patioa estaltzea	Obrak	Irekita eskaintza merkeenarentzat	163.725	11	144.855

Egindako azterketan ez dugu detektatu, oro har, administrazio-kontratazioari buruzko araudiaren urraketarik; hala ere, puntuok nabarmendu nahi ditugu:

- Aipatu dugun lehenengo espeditenteari dagokionez –Estatuko Funtzaren finantzaketa duhutsuneak aurkitu ditugu gauzatze-epen jarraipenean, lizitazioa NAO n eta esleipena Kontratazio Atarian argitaratzeari dagokionean.

- Bigarrenaren, espeditentean ez da ageri obraren hasierako aktarik eta obraren harrera-aktarik.

- Sarrigurenako kirol-hirian jantzi-gelak, maila eta hirigintza-lanak egiteko obraren jarraipena egin da; 2009an esleitu ziren lan horiek, 880.186 euroko diru-kopuru batez (BEZik gabe) eta esleipen hori Ganbera honen ekitaldi horretako txostenean ikuskatu zen. Obrak egiteko prozesuan hutsegiteak ikusi dira obrak burutzeko epeei dagokionez, eta dokumentazioa falta dela, obraren

zuinketaren eta hasieraren aktak, esate baterako. Aitortutako gastu osoaren zenbatekoa esleipenaren zenbatekoa baino ehuneko 15,9 gehiagokoa da, eta, horrenbestez, aldea ehuneko 10 baino handiagoa denez, kontratu horren kontratu-aldaketako espeditentea izapidetu beharko zatekeen.

Udalak egin dituen inbertsioez aparte, Andacelay, SL herriko sozietate publikoak, 2008-2010 bitartean, guztira 7,3 milioi euro egiten duten (BEZik gabe) zenbait eraikin jasotzeko izapideak bideratu ditu Udalarentzat (ikus VI.8 atala). Gure iritziz, Udalari dagokio gisa horretako inbertsioen plangintza, kudeaketa eta kontrola egitea.

Gure aholkuak:

- *Behar bezala betetzea kontratazio-espeditenteak, araudiak ezarritako dokumentazio guztia jasoz.*

- Behar diren kontratu-aldaketak egitea, aitortutako gastuaren zenbatekoak esleipeneko kopuruak Administrazio Publikoen kontratuei buruzko araudiak jartzen dituen mugez gaineratik gainditzen dituzte.

- Kontratuen bilgune zentralizatu bat sortzea, kontratu horien jarraipena behar bezala egiteko.

- Udal zerbitzuak eskaintzeko hain garrantzitsuak diren obren plangintza eta kudeaketa Udalak berak egin, kontrolatu eta finantzatu behar ditu, gure iritzian.

VI.5. SARRERAK

2010eko ekitaldian aitorturiko eskubideak 9,6 eurokoak izan dira; horietako ehuneko 89 eragiketa arruntetatik datoz, eta gainerakoa, ehuneko 11, kapital-eragiketetatik.

Diru-sarreraren betetze-maila ehuneko 89koa izan da; puntu honi dagokionez, ondoko betetzeportzentaje hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Zeharkako zergak, ehuneko 184an, eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergaren araberak bildutako diru-kopuruetatik.

- Kapital-transferentziak, ehuneko 77an, aurrekontuetan aurreikusitako inbertsioak egiazki behar baino gutxiago gauzatu direlako, eta, horrenbestez, haiekin lotuta dagoen partida hau osorik bete ez delako. 2009an 1,2 milioi euro hartu ziren Estatu Funtsetik; 2010ean 0,8 milioi.

- Inbertsio errealeen besterentzea, ehuneko 0,07an, Udalak Uharteko Udalaren eta Eguesibar-ko Udalaren artean hirigintzako lankidetzarako sinatutako hitzarmenaren arabera eraikinen azpiko azalera-eskubidearen tasazioaren ondorioz udal honi dagozkion 273.000 euroak kobratu ez direlako.

Eragiketa arruntetan, zerga, tasa eta bestelako diru-sarrerak diru-sarrera guztien ehuneko 58 egiten dute, eta transferentziek, berriz, ehuneko 28.

2009ko ekitaldiarekin alderatuta, ia sarrera-partida guztiak handitu dira, kapital-transferentziei dagozkienak salbu. Aitorturiko eskubideek ehuneko 12 egin dute gora, Aldacelay Sozietatetik eskuratutako ondarearengatik diru-sarrerari (2009ko dibidenduak -261.000 euro-), zeharkako zergei (EIOZ, 0,6 milioi) eta transferentzia arruntei esker, partez.

Hona kapituluz kapituluko banaketa:

Diru-sarreraren kapitulua	Aitorturiko eskubideak, 2010	Aitorturiko eskubideak, 2009	Aldea, ehunekotan 2010/2009
1 Zuzeneko zergak	2.612.630	2.515.444	% 4
2 Zeharkako zergak	1.631.306	1.063.717	% 53
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.379.449	1.125.931	% 23
4 Transferentzia arruntak	2.693.349	2.396.374	% 12
5 Ondarearengatik diru-sarrerak	318.813	74.662	% 327
Diru-sarrera arruntak	8.635.547	7.176.128	% 20
6 Inbertsio errealeen besterentzea	200	0	
7 Kapital-transferentziak	1.018.118	1.438.751	% -30
8 Finantza-aktiboak	0	0	
Kapital diru-sarrerak	1.018.318	1.438.751	% -30
Diru-sarrerak guztira	9.653.865	8.614.879	% 12

2010eko diru-sarrera arruntak 2009koak baino ehuneko 20 gehiago izan dira, Ibarreko biztanleria etengabe handituz joan denez zeharkako zergei aitortutako eskubideei dagokien diru-kopurua handiagoa izan delako, EIOZen bidez diru-bilketa handitu delako, Erripagañan etxebizitza berriak eraiki

izanagatik batez ere, eta Toki Ogasunen Funtzen diru-laguntzak ehuneko 6 jaso direlako.

Ondoko koadroan ikusten da diru-sarrera arrunt hauek eta EIOZek azkeneko urte hauetan izan duten bilakaera:

	2010	2009	2008	2007
Diru-sarrera arruntak	8.635.547	7.176.128	6.542.838	9.289.739
Diru-sarrera arruntak, EIOZ kenduta	7.004.241	6.112.411	5.273.431	4.667.101
EIOZ	1.631.306	1.063.717	1.269.407	4.622.638

Udalak aplikatzen dituen tasak, EIOZi dagozki-onak salbu, Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak agintzen dituen tasa behereneko tartean daude, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

	2/1995 FORU LEGEA	Udala, 2010
Lurraren kontribuzioa	0,10 - 0,50 bitartean	0.1575
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1 - 1.4 bitartean	1
Lurren balio gehikuntza		2,1 - 2,8 bitartean
Gaurkotze-koefizientea	2 - 3,8 bitartean	
Karga tasa	8 eta 20 bitartean	12
EIOZ	2 - 5 bitartean	4,5-4,8

Tasa hauetan ez da aldaketarik izan 2009koekin alderatuta.

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu. Hala ere, ikusi dugu ez dagoela kontrolerako edo jarraipenerako mekanismorik egiaztatzeko, eraikuntza obrak egiten direnean, obra horiek bide publikoaren zer azalera okupatzen duten eta zehazki jakiteko, ondorioz, zenbateko tasa kobratu behar duen Udalak okupazio horregatik.

Gure aholkuak:

- *Eraikuntza-lanetan bide publikoaren okupazioaren eta dagokion tasan duen eraginaren kontrola hobetzea.*

VI.6. GORABEHERAK

Udala, emandako informazioaren arabera, 23 prozedura judizialeetan dago sartuta 2010eko abenduaren 31n.

Prozedura horietako zenbaiti dagokionez, ez dakigu zer ondorio ekonomiko izan lezaketen. Ondorio ekonomikoak eragin litzaketenetatik, ondoko hauek nabarmentzen dira:

- 1197/2008 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, prozedura arruntekoa, Apartamentos Gorráiz SL-k Gorraitzen apartamentu-hotel bat eraikitzeke obren lizentzia deuseztatzeagatik 2005eko maiatzaren 20an aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioa administrazio-isiltasunaren bidez ezestearen aurka aurkeztua. Errekurtso hori otsailaren 25eko 64/2011 epaiak erabaki du; epai horrek auzi-jartzaileei 6.963.251 euro ordaintzera kondenatu zuen Udala. Epai horren kontra apelazio-errekurtsoa jarri dute bai

Udalak bai Apartamentos Gorráiz SL-k, eta errekurtsu hori epaia eman zain dago une honetan.

- Nafarroako Administrazio Auzitegiaren zenbait ebazpenen aurkako administrazioarekiko zenbait auzi-errekurtso, ebazpen horien bidez EIOZen likidazioa deuseztatzeagatik (guztira, 551.812 euro).

VI.7. HIRIGINTZA

Honela da osatuta Udalaren hirigintzako departamentua/unitatea:

- Bi udal arkitekto
- Arkitekto-laguntzaile bat, obretako buru
- Administrazioiko bi bulegari (bat lanaldi partzialez)

Eguesibarko Udal Plana 2000. urtean onartu zen behin-betiko, eta kontzejuen beste zenbait planeamendu-tresna ere badaude aldi berean.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta egokitzeke.

Eguesibarko Udalaren plan orokorra berraztertzeke prozedura 2006an abiarazi zen. 2011ko maiatzaren 16an, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren erabakiz, behin betiko onespina ematen zaio Eguesibarko Udalaren Plan Orokorrari –ibar osorako bakarra–, baina hiru hilabeteren buruan Erabaki horretan zehazten diren zehaztapen guztiak jasoko dituen testu bateratu bat aurkezteke exijitzen da. Txosten hau egin den egunean, testu bateratu hori onartu gabe dago oraindik. Nafarroako Gobernuaren erabaki

horren kontra errekurtsoa jarri du, gainera, herri-tar-elkarte batek.

Txosten hau erredaktatzen ari zela, Nafarroako Gobernuak balio gabe utzi du, urriaren 19ko erabakiz, planeamendu berriaren behin betiko onarpena, aurreikusten den egoitzen emendioa –21.435 etxebizitza– justifikatu gabe dagoela argudiatuz, besteren artean. Erabaki horrek plan horren behin-behineko onarpen-fasera atzeratzen dira berriro jarduerak.

2010ean Udalak lurraren inbentario bat eta Udalaren Lurzoru Ondarearen erregistro berezia prestatu ditu. Ondare hori osatzen duten elementuen balioa 6,6 milioikoa da.

Planeamendu berria indarrean jarri arte, oztopoak izango dira lurraren hirigintza planeatzeko, garatzeko, burutzeko eta gauzatzeko, Udalaren beraren eta Udaleko kontzejuen planeamendutresna desberdinak daudelako aldi berean.

Beste alde batetik, hirigintzako espedienteen kudeaketa, kontrola eta jarraipena erraztuko luke ten kudeaketa-prozedurarik, datu-baserik eta artxi-bo zentralizaturik ez dagoela ikusi da. Horrez gainera, hirigintzako udal enpresek gauzatzen duten hirigintza-jarduerari dagokionez –etxebizitzak eta bestelako obra batzuk bultzatzea eta eraikitzea–, Udalaren hirigintzaren kudeaketarako eta barne kontrolerako organoek ez dute behar bezalako jarraipenik egiten inbertsio horien garapen-prozesuaz.

Azkenik, Comptos Ganbera honen iritziz, garrantasun eta kontrol mailarik handienarekin egiten behar da hirigintzaren kudeaketa, baliabide ekonomiko handiak erabiltzen direlako udal kudeaketako oinarritzko arlo honetan. Udalak, administrazioan erabat tipikoa den jarduera hori egiteko, hirigintza-sozietateak sortzeak eragotzi egiten du printzipio horiek betetzea eta, hartara, zailagoa da Udalaren aldetik antolamendua, kudeaketa eta kontrola. Konplexutasun hori are nahasgarriagoa bilakatzen da, hala ere, hirigintzako udal sozietateak Udalarentzat garrantzi handiko beste zenbait obra egiten eta hark honi laga dizkiolarik.

Gure aholkuak:

- *Udalak bere antolamendua erabakitzeke ahalmena eta egokien irizitako hirigintza-kudeaketako modua hautatzeko autonomia gorabehera, jarduera hori hirigintza-sozietateen bidez kudeatzeko egungo modua, eta kudeaketa modu hori udalak bilatu beharreko interes publikoari ongi egokitzen zaion aztertzea.*

- *Udaleko hirigintza-alorra berriro antolatzea, Udalak berak zein berak partaidetza duen sozie-*

tateek bideratzen dituzten hirigintza-jardueren kudeaketa, kontrola eta jarraipena modu egokian egiten ahal izaten dadin.

- *Udalak diseinatu eta aplikatu ditzala Udalaren kapitala duten sozietateek, jarduera orotan, bete beharko dituzten finantza- eta eraginkortasun-kontrolerako prozedura juridiko eta tekniko bereziak.*

- *Hirigintza-espedienteen artxi-bo zentralizatu bat egitea, espedienteen kontrol, kudeaketa eta jarraipen egokia egiten ahal izateko.*

VI.8. ANDACELAY, SL SOZIETATE PUBLIKOA

Eguesibarko Udalak 2004an eratu zuen Andacelay, SL sozietate publikoa, Udalak osorik harpidetu eta ordaindutako 4.000 euroko kapital sozialarekin.

Sozietate horren eginkizunen artean, eginkizun bakarrak izan gabe, helburu hauek daude: a) Aholkularitza teknikoa eta juridikoa ematea, bai plan-gintzari bai hirigintza-kudeaketari dagokienez; b) Lurzoruaren sustapena egitea, haren eraldaketaren eta urbanizazioaren bidez; c) Urbanizatsetik heldu diren obrak kudeatzea eta ustiatzea, eginkizun horien emakida lortuz gero; d) Lur-zatiak besterentzea; e) Etxebizitzen sustapena egitea eta zaharberritzea eta industria-nabeen sustapena egitea, salmenta-bidez zein alokairu gisa; f) Erki-dego-ekipamenduaren sustapena eta kudeaketa egitea; g) Aisia-jardueren sustapena egitea; h) Ostalaritza eta sukaldaritza; i) Administrazio-zerbitzuak, logistikoak eta entitate publiko eta pribatuekiko komunikazioa, eta k) Udalaren lur-ondarearen administrazioa, higiezin merkatuan esku hartuz. Helburu horiek helburu hau bera edo gisakoa duten beste sozietate batzuen partaidetzaren bidez bete ditzake.

Andacelay, SL-k ondoren zehazten diren lur-zatiok jaso ditu, Eguesibarko Udalak doan lagatuta, etxebizitza babestuen sustapena egiteko:

- 2005ean, Sarrigurengo 3B-4 lur-zatia.

- 2006an, Sarrigurengo 3A-9 (a, b eta c) lur-zatia.

- 2008an, Erripagañako udalez gaindiko eragina duen plan sektorialeko berrantolatze-proiektutik heldu diren A-1.1, A-1.2 lur-zatiak eta A-1.3 lur-zatiaren ehuneko 55,72.

Lur-zatiok bitariko sozietateei besterendu zitzaizkien gerora (ikus VI.9 atala).

Andacelay, SL sozietatearen urteko kontuez, 2010eko abenduaren 31n, kanpoko kontu-ikuska-tzaileek egindako finantzen kontu-ikuskatze bat egiten da; haiek beren iritzia eman dute, txostenean

Administrazio Kontseiluko kideek –Administrazio Kontseilu hori Udalaren ordezkariak osatzen dute soil-soilik– multzotik kanpokoak izan baina antzeko helburu soziala duten sozietateetan izan ditzaketen karguei buruz informaziorik ez delako salbuespenarekin; kontu-ikuskaritzaren txosten honetan aurrerago zehazten denez, informazio hori ez emateko arrazoia kontseilarien intimitate pertsonalerako eskubidea urra daitekeela esanez justifikatzen du sozietateak. Gure iritzian, informazio hori Kapitaleko Sozietateen Legearen arabera eska daitekeen informazioa izatez gainera, ez da ahaztu behar enpresa publiko bat dela eta, horrexegatik, erabateko gardentasunaren printzipioak izan behar duela nagusi.

Sozietatearen 2010eko abenduaren 31ko ondare garbia 13,1 milioi eurokoa zen; horietatik, 9,7 milioi euro erreserbak dira, Udalak doan lagatutako lur-zatiak 8 milioi eurotan (BEZa kanpo) saltzetik heldu direnak neurri batean, eta 3,4 milioi 2010eko ekitaldiaren emaitzari dagozkionak; haue-tatik 2,5 milioi euro Udalak laga eta 2010ean Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL saldu zitzaion azken lur-zatiari dagozkie. Aktibo zirkulatuaren

"Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak" 6,3 milioi eurokoa da. Sozietate honek ez du langilerik.

Udalaren lur-ondaretik heldu diren lur-zati horiek besterentzetik lortutako diru-sarrerak, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko 227. artikuluan ezarritako xedeetara bideratu behar dira. Xede horien artean dago, besteren artean, ekipamendu kolektiboak edo erabilera publikoko beste udal instalazio batzuk eraikitzea, baldin eta administrazio publikoek edo haien sozietate instrumentalek sustatzen badituzte.

Andacelay, SL sozietatearen Administrazio Kontseiluak –ez dauka bere baliabide berezirik– ondoko obra hauek esleitzeko prozedurak onetsi zituen: "Sarrigurengo udal bulegoen eraikina" (2008ko urriaren 29an), "Sarrigurengo kirol-hirian jolaserako eta olgetarako igerilekuak eraikitzea" (2009ko azaroaren 26an). Era berean, 2010eko azaroaren 23an, Sarrigurengo udal bulegoen eraikinaren ekipamendua hornitzeko kontratazioarako prozedura abiaraztea onartu zuen. Prozedura hauek ondoren zehazten diren ezaugarriak dituzte (zenbatekoak BEZik gabe):

	MOTA	Esleipen-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren zenbatekoa	Erabilitako zenbatekoa
Sarrigurengo udal bulegoen	Obrak	Irekia	5.272.000	5.141.886	5.697.337
Sarrigurengo kirol-hirian jolaserako tarako igerilekuak	Laguntza eta obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	1.500.000	1.395.000	1.337.347
Sarrigurengo udal bulegoen tratazioa (2010)	Hornidura	Irekia	383.176	327.043	327.093

2009an Sarrigurengo udal bulegoen eraikina jasotzeko kontratazioaren espedientea ikuskatu zen; ikuskatze horretan ikusi zenez, lan horiek esleitzeko prozeduran nahiko ongi bete ziren alor horretan aplikatzekoak diren kontratazioari buruzko lege-printzipioak, baina ezin izan zen egiaztatu esleipena kontratazio-atarian argitaratu zenik.

2010eko ekitaldian obra horretarako hasieran izendatutako zenbatekoaren eta obra egitearen guztirako kostuaren artean ehuneko 10,8ko desbideratzea izan dela ikusi dugu. Kontratazio publikoarako araudiak ezarrita dauka obra-kontratuaren ehuneko 10 baino gehiagoko desbideratzeak gertatzen direnean, kontratuaren kontratu-aldaketako

espediente bat tramitatu behar dela; sozietateak a *posteriori* tramitatu du espediente hori, 2011ko iraillean, obra bukatu ondoren.

Jolaserako eta olgetarako igerilekuak eraikitze-ari dagokion espedientea ikuskatzean –2009an egin zen deia eta 2010eko otsailan esleitu ziren lanak–, ezin izan dugu egiaztatu indarrean dagoen araudiak eskatzen duen administrazio-dokumentazioaren parte bat dagoenik; horien artean bereziki aipatu nahi ditugu Nafarroako kontratazio-atarian lehiaketako emaitza argitaratzea, Udaleko teknikariek egindako balorazio-txostena eta obren zuinke-ta eta hasierako akta.

Sarrigurengo udal bulegoetarako ekipamendua hornitzeko kontratazioaren espedientea ikuskatu denean, lan horiek esleitzeko prozeduran nahiko ongi bete ziren alor horretan aplikatzekoak diren kontratazio administratiboari buruzko lege-printzipioak, baina kontratua baldintza administratiboen orrian eta indarrean dagoen araudian aurreikusita dagoen data baino geroago formalizatu dela ikusi dugu.

Andacelay sozietatearen Administrazio Kontseiluaren 2011ko apirilaren 18ko aktan ordu arteko instalazioak (udal bulegoen eraikina eta Sarrigurengo jolaserako eta aisiarako igerilekuak) Udalarari doan uztea erabakitzen da, 6,5 eta 1,4 milioi euroko balioarekin (BEZik gabe). Emakida hori 2011ko maiatzean egin zen bileran onartu zen.

Laburtuz, bada, 4.000 euroko kapitala eta langilerik eta kudeaketarako bere baliabide berezirik ez duen udal enpresa publiko batek 7,3 milioi ingururaino iristen direla begiz jo diren inbertsioak (BEZik gabe) egin ditu Udalarentzat. Beste alde batetik, partaidetzarik handiena berak duen bitariko bi sozietateren bitartez –hauek ere ez dute langilerik eta sozio pribatu berak kudeatzen ditu–, 348 etxebizitza babestu ari da eraikitzen, sozio pribatu horren bitartez; bitariko enpresa misto horiek Udalaren lur-ondareko lur-zatietan egiten dute eraikuntza-jarduera hori Udalak udal enpresa publikoari doan laga eta sozietateok hari erositako lur zatietan.

Gure aholkuak:

- *Sozietatearen txostenean indarrean dagoen araudiak eskatzen duen informazio guztia ematea, sozietatearen urteko kontuetan erabateko garrantasuna izan dadin, sozietate publiko guztiei eskadakiekeen bezala.*

- *Behar bezala betetzea kontratazio-espedienteak, araudiak ezarritako dokumentazio guztia jasoz.*

VI.9. GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21, SA ETA GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21-II, SL BITARIKO SOZIETATEAK

A. Gestión y Promoción Egüés 21, SA

2005eko uztailaren 5ean eratu zen Gestión y Promoción Egüés 21, SA, 300.000 euroko kapital sozialarekin; kapital horren ehuneko 51 Andacelay, SL-k harpidetu zuen eta ehuneko 49 bazkide pribatu batek (NASIPA, SL). Bazkide pribatuaren aldeko artekaritza saria ehuneko 4koa da.

Sozietatearen helburuak higiezin mota oro erosi eta eraikitzea, higiezinaren sustapena, urbanizazioa, kudeaketa eta merkaturatzea dira, eta orobat horiekin lotutako eta horien osagarri den beste edozein jarduera ere. Eguesibarko Udalean etxebizitzak sustatu eta eraikitzea izan du jarduera nagusia.

Sozietate honek Sarrigurengo 3B-4 lur-zatia erosi zion 2005ean Andacelay, SL-ri, prezio tasatuko 48 etxebizitza sustatzeko, eta 2007an, berriz, Sarrigurengo 3A-9 lur-zatia, prezio tasatuko 114 etxebizitza eta babes ofizialeko 48 etxebizitza sustatzeko. Etxebizitza horietako gehienak salduta daude txosten hau idazten den unean.

Gestión y Promoción Egüés 21, SA sozietatearen urteko kontuez, 2010eko abenduaren 31n –I. Eranskinean sartu ditugu, informaziorako–, kanpoko kontu-ikuskatzaileek egindako finantzen kontu-ikuskatze bat egin da; haiek beren iritzia eman dute, txostenean Administrazio Kontseiluko kideek –Administrazio Kontseilu hori Udalaren ordezkariak osatzen dute soil-soilik– multzotik kanpokoak izan baina antzeko helburu soziala duten sozietateetan izan ditzaketan karguei buruz informaziorik ez delako salbuespenarekin; Kontseilu hori Udalaren hiru ordezkariak eta bi kontseilari pribatuk osatzen dute. Gai honi dagokionez, VI.8 atalean esandakoa errepikatzen dugu.

Milioi bat euroko ondare garbia du, ekitaldiko emaitza 73.492 eurokoa izan du, epe luzerako 0,3 milioi euroko zorra du eta 1,1 milioi euroko manio-brafuntsa. Sozietate honek ez du langilerik.

Gastuen artean, bazkide pribatuak egindako kudeaketaren ordainez hari ordaindutako 0,7 milioi euro azpimarratzen ditugu.

Gastuen artean, bazkide pribatuak egindako kudeaketaren ordainez hari ordaindutako 0,7 milioi euro azpimarratzen ditugu.

B. Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL

Gestión y Promoción Egüés 21 II, SL sozietatea 2010eko martxoaren 29an osatu zen. 3.100 euroko kapital soziala ezarri zen; kapital horren ehuneko 51 Andacelay, SL-k harpidetu zuen, ehuneko 48,97 bazkide pribatu batek (NASIPA, SL) eta ehuneko 0,03 Gestión y Promoción Egüés 21, SA sozietateak. Bazkide pribatuaren aldeko artekaritza saria ehuneko 2koa da.

Sozietatearen helburu soziala edozein eratako higiezinaren sustapena egitea eta eraikitzea da, baina Eguesibarko udalerrian, Erripagañako udalez gaindikoko plan sektorialaren esparruan (A.1.1, A.1.2 eta A.1.3 lur-zatietan) etxebizitzak bultzatzea, sustatzea eta eraikitzea batez ere.

Sozietate honen Administrazio Kontseilua Udalaren hiru ordezkariak eta bi ordezkari pribatuk osatzen dute.

Gestión y Promoción Egüés 21, SA sozietatearen urteko kontuez, 2010eko abenduaren 31n –I. Eranskinean sartu ditugu, informaziorako–, kanpo-ko kontu-ikuskatzaileek egindako finantzen kontu-ikuskatze bat egin da; eta iritzia aldekoa izan da. Hau da, hain zuzen ere, sozietate honen jardueraren lehenengo urtea.

Sozietate honen aktiboaren parterik garrantzitsuena Andacelay sozietate hau eratzeko konkurtsoan besterendutako hiru lur-zatiei dagozkien 5,7 milioi euroko izakinak dira. Pasiboan, berriz, etxebizitza babestuak eraikitzeke emandako epe luzerako 3,5 milioi euroko zorra eta, epe laburrera, bazkide pribatuari ordaindu beharreko 0,7 milioi euroko zenbatekoa azpimarratu nahi ditugu. Ekitaldiko emaitza zero eurokoa da. Sozietate honek ez du langilerik.

Sozietate honen Kontseiluaren 2010eko uztailaren 30eko aktan Erripagañako udalez gaindiko plan sektorialaren esparruan dauden A.1.1, A.1.2 eta A.1.3 lur-zatietan babes ofizialeko 138 etxebizitza eraikitzeke lanak kontratatzeke prozedura arautuko duten baldintza-orria Andacelay, SL-k presta dezala onartzen da.

2010eko abuztuaren 10ean eta 13an argitaratzen da prozedura hori Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako kontratazio-atarian,

13,98 milioi euroko lizitazio-zenbateko batez (BEZik gabe).

Prozedura horretarako hiru eskaintza agertu ziren –bazkide pribatuarena, besteren artean–; horietatik bat, ordea, baztertuta geratu zen baldintza-orrian eskatzen zen kaudimen ekonomikoaren ratioa betetzen ez zuelako.

Sozietate honen Kontseiluaren 2010eko urriaren 26ko aktan, lehiaketa publikoan lortutako puntuaketetan oinarrituz, babes ofizialeko 138 etxebizitza horiek eraikitzeke lanak NASIPA, SL, bitariko enpresako bazkide pribatuari esleitzea erabakitzen da, 11,9 milioi eurotan (BEZ kanpo), ehuneko 15 inguruko beherapen batez. Proiektua aztertu ondoren, aurreikusi gabe zeuden obra-unitate batzuk azaldu dira; unitate horiek 411.205 eurotan gauzatuko dira azkenik (BEZ kanpo); horrek ehuneko 3,5eko gehikuntza bat eragingo du hasierako prezioaren gainean.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2011ko azaroaren 17an

Lehendakariak: Helio Robleda Cabezas

I. GEHIGARRIA. “Gestión y Promoción Egüés 21, SA” bitariko sozietatearen 2010eko ekitaldiari dagozkion egoera-balantze laburtua eta galeren eta irabazien kontu laburtua

2010eko egoera-balantze laburtua

AKTIBOA

	2010	2009
A. AKTIBO EZ KORRONTEA	362	361
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	362	361
B. AKTIBO KORRONTEA	1.357.082	3.741.066
II. Izakinak	991.679	3.452.173
III. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	66.886	541
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	298.517	288.352
AKTIBOA, GUZTIRA	1.357.444	3.741.427

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

	2010	2009
A. ONDARE GARBIA	1.040.306	966.814
A.1 Funtz propioak	1.040.306	966.814
I. Kapitala	300.000	300.000
III. Erreserbak	666.814	76.339
VII. Ekitaldiko emaitza	73.492	590.475
A.3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	0	0
B. PASIBO EZ KORRONTEA	293.845	2.401.961
II. Epe luzeko zorrak	293.845	2.401.961
C. PASIBO KORRONTEA	23.293	372.652
III. Epe laburreko zorrak	9.128	8.491
V. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	14.165	364.161
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	1.357.444	3.741.427

2010eko galera eta irabazien kontu laburtua

	2010	2009
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	2.666.361	26.221.720
2. Produktu bukatuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldaketa	-2.467.043	-18.803.260
3. Enpresak, bere aktiborako, egindako lanak	0	0
4. Hornidurak	0	-5.398.457
5. Bestelako ustiatzeengatikoko diru-sarrerak	0	631.189
6. Langile gastuak	0	0,00
7. Bestelako ustiatze-gastuak	-59.620	-1.385.256
8. Ibilgetuaren amortizazioa	0	0
9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen egozpena	0	0
10. Gehiegizko hornidurak	0	0
11. Ibilgetua besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0	0
13 Bestelako emaitzak	-1.313	67.401
A) USTIATZEAREN EMAITZA	138.385	1.333.337
14. Finantza bidezko diru-sarrerak	0	10
15. Gastu finantzarioak	-33.397	-490.668
16 Tresna finantzarioetako balio-aldaketa arrazoizkoa	0	0
17. Aldaketako aldea	0	0
18. Tresna finantzarioak besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0	0
B) EMAITZA FINANTZARIOA	-33.397	-490.658
C) ZERGA AURREKO EMAITZA	104.988	842.679
17. Mozkinen gaineko zerga	-31.496	-252.204
D) EKITALDIKO EMAITZA	73.492	590.475

II. GEHIGARRIA: “Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL” bitariko sozietatearen 2010eko ekitaldiari dagozkion egoera-balantze laburtua eta galeren eta irabazien kontu laburtua

2010eko egoera-balantze laburtua

AKTIBOA

	2010	2009
A. AKTIBO EZ KORRONTEA	361	0
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	361	0
B. AKTIBO KORRONTEA	6.581.494	0
II. Izakinak	5.712.196	0
III. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	760.747	0
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	108.551	0
AKTIBOA, GUZTIRA	6.581.855	0

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

	2010	2009
A. ONDARE GARBIA	3.100	0
A.1 Funts propioak	3.100	0
I. Kapitala	3.100	0
III. Erreserbak	0	0
VII. Ekitaldiko emaitza	0	0
A.3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	0	0
B. PASIBO EZ KORRONTEA	3.529.322	0
II. Epe luzeko zorrak	3.529.322	0
C. PASIBO KORRONTEA	3.049.433	0
I. Kreditu entitateekiko zorrak	730.076	0
III. Epe laburreko zorrak	579.446	0
V. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	1.739.911	0
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	6.581.855	0

2010eko ekitaldiko galera eta irabazien kontu laburtua

	2010	2009
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	0	0
2. Produktu bukatuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldaketa	5.712.196	0
3. Enpresak, bere aktiborako, egindako lanak	0,00	0
4. Hornidurak	-4.275.666	0
5. Bestelako ustiatzeengatikoko diru-sarrerak	0	0
6. Langile gastuak	0	0
7. Bestelako ustiatze-gastuak	-1.179.828	0
8. Ibilgetuaren amortizazioa	0	0
9. Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzen egozpena	0	0
10. Gehiegizko hornidurak	0	0
11. Ibilgetua besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0	0
13 Bestelako emaitzak	0	0
A) USTIATZEAREN EMAITZA	256.702	0
14. Finantza bidezko diru-sarrerak	0	0
15. Gastu finantzarioak	-256.702	0
16. Tresna finantzarioetako balio-aldaketa arrazoizkoa	0	0
17. Aldaketako aldea	0	0
18. Tresna finantzarioak besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0	0
B) EMAITZA FINANTZARIOA	-256.702	0
C) ZERGA AURREKO EMAITZA	0	0
17. Mozkinen gaineko zerga	0	0
D) EKITALDIKO EMAITZA	0	0

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Eguesibarko Udaleko alkate José A. Andía García de Olalla jaunak, Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, ondokoa dio:

2011ko azaroaren 7an jaso duela Eguesibarko Udalaren 2010eko ekitaldiari dagokion behin-behineko fiskalizazio-txostena.

Hura aztertuta, eta emandako zazpi egun naturaleko epearen barruan, idatzi honen bidez ondoko alegazio hauek aurkeztu nahi dituela:

Lehenengoa. Txostenaren 23. orrialdean esaten da Andacelay S.L. sozietate publikoak, 2008-2010 bitartean zenbait eraikin jaso dituela udal honentzat, 7,3 milioi euroko diru kopuru batez; eta Comptos Ganberaren iritzian, Udalarena izan beharko lukeela era horretako inbertsioak egiteko plangintza-, kudeaketa- eta kontrol-ekimena, eta hala jokatzeko aholkua ematen du.

Honi dagokionez, esan beharra dago sozietate horrek –fiskalizazio-txostenak jasotzen duen bezala– Udalak berak sinatu eta emandako kapital soziala duela, eta Udalbatza osoak osatzen duela sozietate horren Osoko Bilkura.

Zirkunstantzia horiek kontuan hartuta, beraz, sozietate inbertsio horiek egiten dituzenean, sozietate horren bitartez bada ere, inbertsio horiek Udalak berak planifikatzen, kudeatzen eta kontrolatzen dituela ulertu behar da.

Bigarrena. Fiskalizazio-txostenaren 13. orrialdean hau esaten da:

“Beste alde batetik, hirigintzaren eremuari dagokionez, Udalak udal-enpresa publiko bat sortu zuen eremu hori kudeatzeko (Andacelay), baina ez zuen hornitu ez giza baliabidez ez kudeaketa-baliabidez bereziz. Enpresa horren bidez, Udalarentzako berarentzako inbertsio handiak egin ditu, alde batetik, 2008-2010 bitartean –7,3 milioi euro guztira (BEZa gabe)–; eta, bestetik, bitariko bi sozietate eratu ditu –giza eta kudeaketa-baliabiderik gabeak hauek ere– kudeaketa-komisio baten truke bi sozietateak kudeatzen dituen eta, horrez gainera, 348 etxebizitza babes-teren promozioa egiteko eta eraikitze kontratuen esleipenduna den bazkide pribatu berarekin. Bitariko enpresa misto horiek udalaren lur-ondareko lur-zatietan egiten dute eraikuntza-jarduera hori udalak udal enpresa publikoari doan laga eta sozietateok hari erositako lur-zatietan.

Comptos Ganberak azkeneko txostenetan behin eta berriro azpimarratu duen bezala, Udalak ongi aztertu beharko luke ea hirigintza kudeatzeko gaur

egungo eredu horrek ongi betetzen dituen kudeaketa publikoaren goiburuak izan beharko luketen interes publikoaren, gardentasunaren eta kontrolaren printzipioak.”

Eta txostenaren 27. orrialdean honela esaten da:

“Azkenik, Comptos Ganbera honen iritziz, gardentasun- eta kontrol-mailarik handienarekin egin behar da hirigintzaren kudeaketa, baliabide ekonomiko handiak erabiltzen direlako udal kudeaketako oinarriko arlo honetan. Udalak, Administrazioan erabat tipikoa den jarduera hori egiteko, hirigintza-sozietateak sortzeak eragotzi egiten du printzipio horiek betetzea eta, hartara, zailagoa da Udalaren aldetiko antolamendua, kudeaketa eta kontrola. Konplexutasun hori are nahasgarriagoa bilakatzen da, hala ere, hirigintzako udal sozietateak Udalarentzat garrantzi handiko beste zenbait obra egin eta hark honi laga dizkiolarik.

Gure aholkua:

- Udalak bere antolamendua erabakitzeke ahalmena eta egokien irizitako hirigintza-kudeaketako modua hautatzeko autonomia gorabehera, jarduera hori hirigintza-sozietateen bidez kudeatzeko egungo modua, eta kudeaketa modu hori Udalak bilatu beharreko interes publikoari ongi egokitzen zaion aztertzea.”

Honi buruz esan beharra dago hirigintzaren kudeaketa Udalak berak egiten duela zuzenean eta udal sozietateen bitartez bideratutako jarduerak ez direla inola ere hirigintzaren kudeaketari dagozkionak, etxebizitzaren sustapena eta eraikuntza egitekoak eta obra jakin batzuk gauzatzekoak baizik, sozietate horien jarduerak aztertzen diren fiskalizazio-txostenean jasotzen den bezala, bestalde.

Beste alde batetik, etxebizitzak sustatzeko eta eraikitzekeko prozedurak eta obra jakin batzuk egitekoak 6/2006 Foru Legeak kontrataziorako ezartzen dituen printzipioetara mendekotu dira, publikotasunez eta lehiaz egin dira eta interes publikoari erantzuten zioten. Zehazki esateko, bitariko sozietatearen bidez etxebizitzak sustatu eta eraikiz, jarduera horien bitartez lortutako gainbalioak komunitatera eta udalerrira gehiago itzultzea lortu da, eta neurri horretan interes publikora egokitzen da jarduera hori, zalantzarik gabe.

Hori guztia dela eta,

Alegazio hauek aurkeztutzat hartzea eta behin betiko fiskalizazio-txostena egiterakoan kontuan hartzea eskatzen da.

Sarriguren, 2011ko azaroaren 14ean.

Eguesibarko Udaleko Alkatea: José A. Andía García de Olalla

**EGUESIBARKO UDALEKO ALKATEAK
EGINDAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBE-
RAK EMANDAKO ERANTZUNA**

Eguesibarko Udaleko Alkateak Behin-behineko Txostenari egindako alegazioak jaso eta aztertu ondoren, txosten horretan sartzen dira, eta txostenaren funtsa ezertan aldatzen ez dutela iritzirik, behin betikotzat jotzen dugu txostena.

Hala ere, Ganbara honek adierazpen hauek egin nahi ditu alegazio horiei buruz:

1. alegazioa: Udal enpresak egindako inbertsioei buruz. Txostenean adierazten den bezala, ez da ageri udalaren hirigintza eta barne kontroleko zerbitzuek inbertsio horien garapenaren eta betetzearen behar bezalako jarraipenik egiten dutenik; eta aipatzen den sozietateak ere ez ditu eginkizun hori betetzeko bere baliabide berekiak. Eta ez da ahaztu behar, gainera, sozietate horrek dituen finantza-

baliabideak Udalak doan emanik hartu dituen Udalaren Lurzoru Ondareko lur-zatiak salduz lortutako diru-sarreretatik datozela.

2. alegazioa: Hirigintzaren kudeaketa-eredua. Hainbesteko garrantzia duen alor honetan erabiltzen duen kudeaketa-ereduaren egokitasuna aztertzeko aholkatzen dio Udalari Comptos Ganberak aurkeztutako txostenean, haren iritzian, etxebizitza babestuak eraikitzeke lanetan bitariko sozietateek parte hartzen dutelarik –eta sozietate horiek beren langile berekirik ez dutenez, eta bazkide pribatu bera dutenez–, ezinezkoa bihurtzen baita udal zerbitzuentzat jardunbide horien behar bezalako jarraipen eta kontrol bat egitea. Eraikuntza-lan horiek hasieran Udalaren Lurzoru Ondarekoak ziren lur-zatietan egiten dira, gainera.

Iruñea, 2011ko azaroaren 17an

Lehendakaria Helio Robleda Cabezas